2008ko abendua 77. zenbakia

aikor!

eorizerriko aldizkaria

Gabon borobilak guztiontzat

Gizonduz ekimena – Euskararen Eguna – *Bon Apéttit,* Txorierrin – Derio saskibaloi taldea

Ixorrierriko Mankomunitateak
eta Udalek
zorionak eta urte
berri on opa deutsuecez

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Bestorrene, Iñaki Suarez, Jon Goikouria eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Fernando Larrondo, Rosa Martínez de Lezeta, María Larrondo, Juan Luis Goikoetxea, Juantxu Bilbao, Oihana Astobieta, Belen Gana, Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

diruz lagundutako aldizkaria

40 Derio saskibaloi taldea

28 *Bon Apéttit*, Txorierrin

24 Euskararen Eguna


16 Gabonetako egitarauak

12 Gizonduz ekimena

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **7**Laburrak eta albisteak **12**Gurean izan da... Gizonduz ekimena **14**Gaztea eta... Arkaitz Ducy **16**Gabonetako egitarauak **24**Euskararen Eguna **28***Bon Apéttit*, Txorierrin **34**Behargintza, publierreportajea **36**"Txori-Herri" Gabon-kanten Jaialdia **38**José Mari Legarreta misiolaria **40**Derio saskibaloi taldea **42**Musika **43**Teknologia **44**Txorierritarrak munduan **46**Sukaldaritza **49**Denborapasa



Familiek gure zaharren zaintzan duten inplikazioa

Hurrengo hamarkadak markatuta geratuko dira, zalantzarik gabe, zahartze fenomenoaren ondorioz. Egoera berri honen ondorio sozio-sanitarioak erronka garrantzitsuenetariko bat izango dira, gure gizarteak aurre egin beharrekoa.

Orain gutxi arte uste zen, bizi itxaropena hazi ahala, aski izango litzatekeela arrisku faktoreei eta bizi estiloari eragitea, gaixotasun kronikoen agerpena atzeratzeko eta horrela bizi aktiboa luzatzeko. Baina, mendekotasunik gabeko bizi urteen kopurua hazi arren, hazkundea handiagoa izan da mendekotasun eta ezgaitasun handiko pertsonengan.

Gaur egun, familia da arreta-emaile nagusia; ondorioz, familia dinamika osoa aldatu da automatikoki, eta zaharraren beharrizanen mende egotera igaro da. Egoerarik zailena eta mingarriena gertatzen da zaharra bakarrik gehiago bizi ezin denean, berarekin norbaitek egon behar duela ikusten duenean edo haren zaintza erakundeen esku uzteko aukera planteatzen denean.

Zaharrei arreta berezia eman beharra (zorotasunen eragin handiagoaren eta gorputzaren eta ezagutzaren hondatze gradu desberdinen ondorioz), bai eta familian izandako aldaketak –zerikusia dutenak lan rola emakumezkoen artean zabaltzearekin, familia ereduaren aldaketekin eta etxebizitzen espazio murriztapenekin– zaharren arreta erakundeen esku uztera bultzatzen duten faktoreak dira.



ROSA FERNÁNDEZ DE LECETA
(Gizarte-langilea)

Familiek zaintzaile rolean dituzten onurak aipatuak izan dira orokorrean helburutzat dituztelako segurtasun emozional handiagoa, deserosotasunen kopuru txikiagoa eta intimitate handiagoa; aldi berean saihesten dituzte arreta erakundeen esku uzteak dakartzan arazo psikopatologikoak. Arreta-emailea familiako zaintzaile bat izateak badi-tu desabantaila batzuk, zerikusia dutenak espezializazioa eskatzen duen zeregina ez ezagutzearekin, laguntza talderik ez izatearekin, zaintzaile nagusiaren gainkargaren ondorioz izaten diren familia-gatazkekin eta etxebizitzak era honetako arretetarako egokiak ez izatearekin. Frogatuta dago gaixo zaharrak zaintzeak hainbat eratako arazoak sortzen dizkiela zaintzaileei. Zaharra zaintzeak sortzen dituen etengabeko kezkak eta tentsioak, lan horri eman beharreko denborak eta neke fisikoak eragina izaten dute lan jardueren garapen normalean, eta zaintzailearen bizitza soziala murrizten dute.

Etxean zaharrei arreta eman ezin izateak arreta hori erakundeen esku izatea ekarriko du eta hori zerbait traumatikoarekin loti ohi dugu. Jakitun izan behar dugu horrek funtsezko aldaketa bat dakarrela pertsona baten bizitzan, eta egoiliarrak ez ezik haren familiak ere bizitzen du aldaketa egoera; ondorioz, errudun sentimena agertzen da, erabaki hori hartzera eraman dituzten milaka arrazoiz justifikatu nahi etengabekoan gauzatzen dena. Aurreiritzi horiek bakarrik gaindi daitezke egoitzetako eta familietako zaintzaileek zaharren zaintzan partekatzen dituzten zailtasunetan parte hartuz eta elkarri aitortuz.

Hitchcockek berak be sinatuko leukeena

Hasi zanean inoren burutik pasaten ez ziran gertakariek hartu dabe gatibu bere azken egunetan dagoan 2008 urtea. Arto eta bestelango zerealen erabilera ez ohikoaren arriskupean hasi zanari, petrolio-deribatuen gorantzako joera mugaezinak emon eutson jarraipen galanta eta, alaitu be, alaitu euskuzan ondo baino hobeto udako lehenengo egunak. Sailkatzekotan komedia baltzaren generoan sailkatu daikegun antzezlan honek, alabaina, uda osterako eukan gordeta kapitulurik gordinena.

Antza, fidagarritasun gitxiko Alabama sakoneko sasirrapero batek eskatu eta itzuli bako mailegu hipotekarioagaz banketxetako tiburoiek egindako eta mundu zabalean banatutako bonboi finantzieroak gure inguruko lantegi txiki eta handietan dabilzan beharginak langabeziarako bidean ipintekotan dira, dagoaneko ez badagoz.

FERNANDO LARRONDO
(Irakaslea)

Bagenkian surfeatzen genduan ongizatearen olatuak noz edo noz behera egin behar ebala, baina, halanda be, zur eta lur lotu gara, eta lotzen gara, egunean-egunean entzun eta ikusten doguzanakaz.

Hasikeran aitatutako gatibu berbea errekuperau gura dot amaitzeko, neure burua halan ikusten dot eta. Bizi dogun oparotasun aroak gure kontroletik kanpo dagoan makina bat aldagairen menpe dagoala, *Big Brother* erraldoi baten txotxongiloak besterik ez garala, hurrengo urteek dakarrena laubost pertsonaje ilunen eskuetan dagoala pentsau izan dot beti.

Amaitzeko, edo hasteko, 2009 urtea. Giroa zeharo ezkor dabil, baina nork daki zer izango dan 6-12 hilabete barru? Rappelkeriatan hasita, 2009 urtea sasiadituek dinoen bezain txarra izango ez dala esatera ausartuko naz. Baietz asmatu!

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo *aikortxori@aikor.com*

Krisialdian, gurea defendatu

Krisia, ekonomia krisia hitzetik hortzera dabilen berria da. Obamaren hautaketarekin batera, lerroak eta lerroak idatzi dituzte egunkarietan krisia dela eta ez dela. Hasieran, banketxeak ibili ziren estu. Orduan, Aita Estatua agertu zen, beharrizanik egonez gero, laguntzeko prest. Dirurik behar badute sistema mantentzeko, nahi duten beste utziko die doan.

Arazotxo hori "konpondu" ondoren, ixtear dauden enpresak barra-barra ari dira agertzen. Gure inguruan ere badira enpresa oso ezagunak eta esanguratsu batzuk arazoetan sartuak: besteak beste, Magefesa, Derion; Irurak, ITA, PEAP eta Flexis, Zamudion; eta Fiel eta MTC, Lezaman. Senide, lagun edo auzokideren batek izango du kolokan lanpostua bertan. Hainbat urtetan jasotako mozkinak poltsikoan gorde dituzte enpresariek, eta langileei proposatzen zaizkien irtenbide bakarrak ez dira batere goxoak: soldatak murriztea, enpresariak langileei zor diena barkatzea... Eta kasu larrietan langileek ez dute irtenbiderik: kale gorrira doaz, langabeziara.

Enpresa bakoitzak bere arazoak dituela ahaztu gabe, egoeraren muina aberastasunaren banaketa desorekatuan bilatu behar dugu. Alde batetik, gobernu batzuen politika sozioekonomikoek gutxi batzuen eskuetara zuzendu dute diruaren pilaketa. Horrezaz gainera, banketxeek eta enpresari batzuek espekulazio-merkatura bideratu dituzte lortutako mozkin guztiak, inbertitutako dirua berehala biderkatzeko. Petrolioa garestitzeak eta etxebizitza merkatuan bizi izan dugun zoramenak ere helburu horixe izan dute.

Beste alde batetik, herritar xumeen erosteko ahalmena gero eta txikiagoa da. Elikagaiak gero era garestiagoak dira eta etxea erosteko hipoteka zorrak, gero eta handiagoak. Enpleguak ere gero eta egonkortasun txikiagoa du. Testuinguru horretan "gerrikoa estutzea" da ematen diguten aholku/agindu bakarra.

Ditxosozko krisialdi honekin agerian gelditu da banketxeek eta enpresariek mozkinak gorde dituztela eta galerak sozializatu direla. Eta honako hau proposatzen zaigu: familiek eta langileek eskotean ordaintzea egoera, langabezia maila handituz eta soldatak eta gastu sozialak murriztuz. Ate bakar hori ikusarazten diguten bitartean, ziur gaude badirela beste bide batzuk egoerari buelta emateko. Haien artean, aipa ditzakegu:

–Sektore publikoa indartzea, hark parte har dezan ekonomian, eta zuzendu ditzan merkatuak sortzen dituen desoreka sozialak.

–Jendearen parte-hartzea bultzatzea politika ekonomikoaren eta fiskalaren inguruko erabakietan.

–Lana banatzea eta kalitatezko enplegua sortzea.

–Lanpostuak defendatzea.

Erronka hor dugu. Birmoldaketa-garaietan erakutsitako tinkotasuna berreskuratu beharko dugu, hortzak estutu eta gurea defendatu.

Mikel Zarate, LABeko kidea

Editoriala

Mikel joan jaku

"Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo.
Bainan, honela
ez zen gehiago txoria izango
eta nik...
txoria nuen maite"

Txorien herria ei da Txorierri, eta doluz gagoz alde egin deuskulako txorien, nortasunaren eta askatasunaren alde egiten hainbeste irakatsi euskunak.
Lezioa ondo ikasi dogu, txoria askea izan behar da. **AIKOR!**-eko txoriak, geure txoriak be, hegaz jarraituko dau hilero etxez etxe bere lana egiten.
Txorierrin euskeraz!

"Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak..."

AGUR ETA OHORE MIKEL!



Nafarroako euskarazko hedabideen adierazpena, diru-laguntzen desblokeoaren aurrean

Nafarroako Gobernuak partzialki desblokeatu du ekainetik blokeatua zuen euskara hedabideetan sustatzeko diru-poltsa. Horretarako gordeta zituen 310.000 eurotatik 240.000 banatuko ditu. Nafarroako euskarazko hedabideok, neurriak gugan eragin zuzena duen heinean, hau adierazi nahi dugu:

Lehenengo eta behin, Hezkuntza Sailak eta Euskarabideak egindako ahalegina eskertu nahi dugu, izan ere, partzialki izan arren, poltsa desblokeatzea ekarri du. Baita Xabier Azanzak zein Carlos Perez-Nievas hezkuntza sailburuak gurekin bildu eta gure egoera ezagutzeko izan duten prestakuntza.

Hala ere, argi utzi nahi dugu diru kopuru hori zein aurrekontuan gordeta zegoena ez direla nahikoak. 240.000 euro horietatik %65 (156.000 euro) izango dira euskara hutsezko hedabideentzako; hau da, gure aurrekontu globalaren %7,6 baino ez.

Era berean, argi adierazi behar dugu aurten gertatu dena onartezina dela eta ezin dela errepikatu: urte hasieran diru-kopuru bat iragarri, hil batzuk geroago kopurua zerora murriztu eta iragarritakoaren %77 banatu azkenean. Euskarazko hedabideon sektorean 30 medio eta 56 profesional gaude, Iruñerri eta iparraldeko nafarrei zerbitzua emateko. Gure egunerokotasuna kolokan jartzea batek ere merezi ez dugun errespetu falta handia da.

Euskararen Legeak euskara sustatzeko agindua ematen dio Gobernuari. Sustapen hori laguntza egonkor eta nahikoen bidez gauzatu behar da, hedabideon jarduera baldintza minimoetan garatu ahal izateko. Gogoratu behar da euskarazko komunikabideok, txikiak izanik ere, ekarpen handia egiten diegula bai euskararen normalizazioari, bai herritarrei ere, inguruko berriak hurbiltzen dizkiegu-eta.

Gure ustez, hitzarmen bat sinatu beharko zen eta bertan jaso zein den euskarazko hedabideon zeregina, hori duintasunez betetzeko zer behar dugun, zenbateko laguntza eman behar digun Gobernuak eta hori jasotzeko, nolako baldintzak bete behar ditugun.

Idatzi hau sinatu dugun hedabideok prest gaude Gobernuarekin mahai baten inguruan eseri eta hitzarmenaren xehetasunei buruz hitz egiteko. Gure ustez, elkarlana da bide bakarra ataka honetatik atera eta alde bion artean akordio batera iristeko.

Ttipi-ttapa, Xuka, Guaixe, Nabarreria, Kotarro, Karrika, Xapo, Marmari, Mailope, Zorroka eta Pulunpe aldizkariek, Xorroxin, Beleixe, Karrape eta Esan-erran irratiek, eta Ttipi-Ttapa eta Xaloa telebistek, Topagunea, Euskara Elkarteen Federazioa

Kepari oroigarria

"Hemen gure artean
egin zinen jaio
Gaztelumendi plazan
hainbat jolas saio
gu utzi ta hartu duzu
betiko garraio
ziur gaude izan dela
"Cars" filmeko Rayo"

Mila esker Kepa
gurekin izandako denbora gutxian
eman diguzun guztiagatik

Gaztelumendi taldea





Doyan gimnasioak zilarrezko domina ekarri du etxera

Azaroan Espainiako Taekwondo Txapelketa jokatu zen Alacanten kadete eta haurren teknika mailan. Txapelketan Doyan Derioko klubeko bost neska-mutilek hartu zuten parte: Aitor Merodio eta Kerman Arranz, teknika mailan; eta Itziar Pardo, Juan del Campo eta Markel Larrabeiti, borrokaldian.

Markelek maila handiko aurkakoei egin behar izan zien aurre, baina berari irabaztea ere zaila dela erakutsi, eta zilarrezko domina lortu zuen azkenean. Finalean Aragoiko parte-hartzaile baten aurka aritu zen. Era berean, borrokaldi bikainak egin zituzten Itziarrek eta Juanek, hala ere, ezin izan zuten dominarik eskuratu. Sondikako neska final-laurdenetara ailegatu zen, eta Laukarizeko mutila, final-zortzienetara.

Beste alde batetik, Aitor eta Kerman Estatu mailako lehiaketa batean aritu diren lehenengo aldia izan da. Gaztetxoek argi utzi dute oso maila altua dutela, hurrenez hurren, zazpigarren eta zortzigarren lekuan gelditu dira-eta. Gainera, biak zortzi parte-hartzailerik onenen artean egotea zuen helburu klubak, eta hura bete dute.

"Lauaxeta olerki saria" jaso dau Atotz Goikoetxea derioztarrak

Mungiako Udalak eta Astiunerako Udal Erakundeak "Lauaxeta Olerki Lehiaketa" antolatu dabe aurten lehenengo aldiz, euren hitzetan lehiaketa "berezi eta garrantzitsua". Ekimen horren bidez, Mungiako Udalak jarraipena emon gura izan deutse 2005ean Esteban Urkiaga "Lauaxeta"-ren jaiotzaren mendeurrenean egindako ekitaldiei. Lehenengo saria Atotz Goikoetxea Derioko gazteak irabazi dau.

Lauaxetak idatzitako Mendigoxaliarena (*Mendigoizalearena*) olerkiaren izenburua oinarritzat hartu eta hortik abiatuta, parte-hartzaileek euren interpretazinoa egin behar izan dabe. "Lauaxetaren poemako girotik abiatuta idatzi neban, hau da, Gerra Zibilean aberriak eukan askatasun saminetik, niretzat benetako mendigoizaleak izan ziran aitita eta amamaren omenez. Gerra urteak eta horreek ekarri ebezan une latzak eta eskasia duintasunez bizi izan ebezalako".

Atotz Goikoetxea euskal filologoa eta itzultzailea da. Hau izan da literatur lehiaketa baten parte hartu dauen lehenengo aldia. "Orain arte neuretzat idatzi dot, baina ingurukoek animatu ninduen lehiaketan parte hartzera. Ezustekoa izan da saria irabaztea; pozik nago".

Sagardotegirako urteeran izena emotea, Loiun

Urtero bezala, Loiuko Beti Lagunak jaibatzordeak urteera antolatu dau Aduna herriko sagardotegi batera. Urteera otsailaren 7an, zapatuz, egingo dabe. Loiutik goizeko 10etan aterako dira eta bazkaria Zabala sagardotegian egingo dabe. Arratsaldean Billabona herria bisitatuko dabe eta bertako Irrintzi alkartean afalduko dabe. Herrira goizaldeko ordu-biak aldera itzuliko dira. Urteerak 55 euro balio dau pertsonako eta izena emotea udaletxean egin behar da urtarrilaren 12tik 16ra bitartean. Ordutegia goizeko 11tatik eguerdiko 11,30era arte izango da eta Etorrez galdetu beharko da.





Beserriberen Alkartea
Lezama S. Coop.

Pintura ecológica

OXANGOITI
Kutur Elkartea = TABERNA
Euskal prasoak etxeral
Aretxalde, 54 - Tel.: 94 455 58 37
LEZAMA

LARRAGTZU
IKASTA-ESKOLA

ESTUDIOS 10 IKASTEGIA

LEPIKO/S.L.

ANKAPALO
LARRAGTZU
LONDOÑO ALDAMA
(BIZKAIA)

hotelia
jatetxaria
arotxarte

Gestión Zamudio

Vértigo

cianoplan s.a.
global printers
- Kartulak kolorez eta e/b.
Digitalizazio eta bakoitzeko, automatikoa eta laguntza.
- Eta desberdinetako hondoarekiko.
- Plastifikazioak.
- Eta zerbitzua.

Artetxe eta Hormaetxe txorierritarrak urtarrilean epaituko dituzte Madrilen

Txorierriko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakinarazitakoaren arabera, Alaitz Artetxe lezamarra eta Arkaitz Hormaetxe zamudioztarra urtarrilean epaituko dituzte Madrilgo Auzitegi Nazionalean beste bederatzi lagunekin batera; zehazkiago esatearren, urtarrilaren 12an, 13an, 14an eta 19an izango da epaiketa.

Hormaetxeri erakunde armatu baten kide izatea leporatu diote eta fiskalak eskatu du berarentzat bederatzi urtez preso edukitzeko eta hamar urtez kargu publikoak betetzea debekatzeko. Artetxeri, berriz, erakunde armatu bati laguntza ematea egotzi diote eta fiskaltzak eskatu ditu berarentzat sei urte eta erdiz preso edukitzeko, 3.920 euroko isuna ezartzeko eta hamabi urtez erabat gaitasungabetzeko.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak azaldutakoaren Espainiar Estatuak diseinaturiko salbuespen epaitegi batera deitu dituzte txorierritarrak. Horregatik, txorierritar guztiei deia zabaldu die epaiketa

egunetan egitekoak diren mobilizazioetan parte har dezaten, "Alaitzi, Arkaitzi eta haien senitartekoei herriaren babesa emateko".

Atxiloketak

Polizia nazionalak 2005eko otsailean atxilotu zituzten Alaitz eta Arkaitz neskaren etxean. Garzon epaileak mutila atxilotzeko agindua eman zuen, baina etxearen miaketan Zutabe aldizkaria topatu eta Alaitz ere eraman zuten atxilo.

Inkomunikatuta egon ziren egunetan tratu txarrak eta mehatxuak jaso zituztela salatu zuten gazteek. Garzon epailearen aurrean deklaratu ostean, Soto del Realeko espetxera eroan zituzten eta handik hainbat kartzelatara aldatu zituzten. Alaitz hurrengo urtearen apirilean irten zen kalera, 24.000 euroko bermea ordaindu ostean; Hormaetxe 2007ko urtarrilean irten zen kartzelatik. Gazteak 12.000 euroko fidantza ordaindu behar izan zuen.

Larrabetzuko bikote bat Bonbaiko atentatuen lekukoa izan da

Azaroaren 26an aldibereko atentatuak izan ziran Bonbaiko hainbat tokitan: tren geltokian, hotel batzuetan, jatetxe batean eta hiriko hegoaldean dagoen polizia-etxean, besteak beste. Erasoaldietan 200 pertsona inguru hil ziren eta 350 lagundik gora zauritu. Na-zionalitate ezberdinetako turistak ere izan ziren biktimen artean.

Jaione Atxutegi eta Karmelo Bilbao Larrabetzuko senar-emazteak atentatuen lekukoak izan ziren. Berria egunkariari kontatu dioten moduan, Oberoi hotelera joan ziren afaltzera eta jaten hasterakoan entzun zituzten tiroak eurengandik gertu. "Sukaldean sartu ginen, ez genekien norantz joan. Batzuek beherantz eta guk gorantz. Laugarren solairura igo ginen eta tiro hotsak behetik eta goitik entzuten genituen".

Ondoren, hotelean behera egin eta igerilekura joan ziren. Bertatik ere itzelezko leherketak izan ziren. Erasoaldia hasi eta ordu erdira elkartu ziren hoteleko langileekin. Kalera atera ziren, baina hotelera itzuli behar izan zuten tiroak zirela-eta. "Jendea oso izututa zegoen. Oso txarto pasatu genuen".

Berria egunkarian azaldutakoaren arabera, aterpea aparkaleku baten atarian topatu zuten azkenean eta handik bulego batera joan ziren. Hurrengo goizean beste auzo batean bizi diren lagunekin bildu ziren. "Beldur itzela pasatu dugu. Trident hoteletik 50 metrora egon gara gau osoan. Kalean soldatuak ikusten ziren, baina telebistak jakinarazten zuen setiotik urrunago, 200 edo 300 metrotara".

Larrabetzuarrek Radio Euskadin ere egin zituzten adierazpenak. "Tiroka hasi zitzaizkigun, zerbitzari bat zauritu zuten. Eskaileretatik hasi ginen korrika, eta tiroka jarraitu ziguten. Beste mutil bat erori zen eta ondoren suak hartu gintuen".

Atxutegi eta Bilbao azaroaren 28an ailegatu ziren Torrejon de Ardozeko hegazkinbasera, eta handik etxera etorri ziren.

Karmele Derio panpina solidarioa, hiru egunean agortua

Derioko Udalak lankidetza-hitzarmena sinatu zuen duela aste batzuk UNICEF elkartearekin. Hitzarmena "Derio bihotzez beteriko Eguberria" kanpainaren barruan egin zen eta ardatz nagusi bi ditu. Alde batetik, Udalak 400 trapuzko panpina erosi eta salgai jarri zituen herriko saltegietan sei eurotan. Panpinak "Karmele Derio" du izena eta hiru egunean agortu zen. Beste alde batetik, Alicia Rueda, Marta Teran eta Isabel Hormaechea diseinatzaileek eta Cercle moda enpresak jantzia egin diete panpinetariko lauri. Panpinok 150 eurotan jarri dira salgai, eta dagoeneko hiru saldu dira. Laurak Herritarrentzako Arreta Bulegoan daude ikusgai, eta oraindik saldu barik dagoena *www.deriokoudala.net* webgunearen bidez eros daiteke. Panpina bakoitzarekin batera ipuin labur bat banatu da. Ipuin horren helburua da baliabide-eskasia duten umeen egoera ezagutaraztea etxeko txikienei.

Batutako dirua UNICEF elkarteari emango zaio, hainbat herrialdetan martxan jarritako programetan erabil dezan.

Ainhoa abeslaria, Fernando Zamora poeta eta Fernando Llorente Athleticeko jokalaria dira Karmele Derio panpinaren amabitxi eta aitabitxiak.

Bestetik, Udalak Gabonetako 2.500 txartel erosi ditu eta derioztarrei jaiak zoriontzeko erabili ditu. Gabonetako txartel bakoitzak 1,25 euro balio du eta UNICEF elkarteari 3.125 euro emango dio guztira.

Pasabide arriskutsua birmoldatu dabe Lezaman

Herriko harategiaren eta Garaioltza auzo errepidearen arteko pasagunea arriskutsua zan mugitzeko arazoak dituen pertsonentzat. Izan be, nekez pasau ahal izaten ziran handik, eta aurrean dagoan beste espaloitik edo errepide ertzetik egin behar izaten eben. Udalak pasabide hori birmoldatu dau, arriskua kentzeko eta pasatea erreztеko. Eskailerak kendu dira eta hareen ordez aldapatxo bat eta altzairu herdoilgaitzeko baranda bat ipini ditue. Proiektua Irisgarritasun Planaren barruan dago eta beharrotan 8.159 euro gastau dira.

Jarduera gelditu da Lezamako tiro-zelaian

Lezamako Udalak eta Lezurmendi ehiza elkarteak hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren bitartez adostu dute Errekatxu tiro-zelaiaren jarduera guztiz gelditzea. Tiro-zelaia itxita dagoen bitartean, beharrezkoak diren ikerketak egingo dira haren jarduera ingurumen-arauetara egokitzeko, eta jarduerari berriz ekin ahal izateko. Errekatxu tiro-zelaia Ganguren mendian dago eta haren jabetza Lezamako Udalak du.



BIZKAIKO NEKAZARIEN KOOPERATIBA ETA ELKARTEAK

LORRA, S. COOP.

Demo Ganeetxe, nº23
48195 LEZAMA (BIZKAIA)
Tel. 94 455 50 63 / Fax: 94 455 62 45
e-mail: lorra@lorra-cg.net

www.lorra-cg.net

Igor Kulsa

Josetxo Riviere, Gizonduz ekimenaren idazkaritza teknikoaren kidea

“Garai, adin eta herri guztietan dago desberdintasuna”

Emakumeen aurkako bortizkeriak gero eta oihartzun handiagoa du komunikabideetan eta gizartean. Baina genero-indarkeria sexuen arteko desberdintasunaren alderdi bat baino ez da. Mugimendu feministaeta erakundeak horren kontrako borrokaren buru ditugu. Gizonduz ekimenaren kide batzuk Derion bildu dira sinadurak batzeko eta gizonak arazoan inplikatzeko.

Testua eta argazkia: Gaizka Eguskiza

Zertarako balio du sinadura batzeak?
Bortizkeriaren kontrako adierazpena da eta sinatzen dutenek konpromiso pertsonala hartzen dute. Gainera, udalerri bakoitzeko gizonak mugiarazi eta hausnarketa egitea nahi dugu. Gizonok gizartearen zatia gara eta, desberdintasunari dagokionez, beste leku batera begiratzen dugu batzuetan. Gizonok pribilegioak ditugu gizartean, baina Gizonduz ekimenekooi ez zaigu hori gustatzen.

Nolako erantzuna izan duzue?
Hiriburuetan ondo, eta herri txikietan okerrago, noski. Dena dela, nahiko pozik gaude. Sinadura-kopurua baino, jasotako erantzuna da garrantzitsuagoa; hau da, gizonek horren inguruan eztabaidatu eta hausnarketa egin dezatela. Oraingoz 5.000 atxikimendu inguru batu ditugu eta datorren urterako 10.000 lortzea espero dugu.

Zergatik gizonak soilik?
Emakume batzuek ere ez dute ulertzen. Emakumeek aspalditik dute argi gizartea aldatu behar dela. Beraz, gizonak ere sartu behar dira borroka horretan, eta konpromisoa hartu.

Desberdintasuna geure arazoa ere badela uste dugu gizonok?
Arazoa konpontzeko iniziatiba emakumeen eskuetan dagoela uste izan dugu orain arte. Gizonduz ekimenetik, aldiz, pentsatzen dugu emakumeen protagonismoa errespetatu behar dela, baina geuk ere parte hartu behar dugula, indarkeria salatzeko, batez ere.

Aurrera doa benetan berdintasuna lortzeko bidea?
Bai. Duela 40 urte emakume batek ezin

> *“Sinadura kopurua baino, jasotako erantzuna da garrantzitsuagoa, hots, gizonek hausnarketa egin dezatela”*

> *“Aurrerapausoak egin arren, argi dago ez direla nahikoa izan, ez delako lortu berdintasunik”*

izan zuen kontu korrontea ireki bere izenean, esaterako. Gaur egun, pentsaezina da; baina gaur egun ere lanpostu berean gizonek gehiago kobratzen dute emakumeek baino. Eta hori 40 urte barru ere pentsaezina izango da, agian. Aurrerapausoak egin arren, argi dago ez direla nahikoa izan, ez delako berdintasunik lortu.

Legea egokia da? Zer eskatuko zenieke politikariei?

Legeak norabidea ezartzen du, baina gizarteak bat egin behar du horrekin; bestela, jai dugu. Eta Gizonduz ekimena ildo horretatik doa. Gizonengan aldaketa bultzatzen duten programak sustatu behar dituzte politikariek; lege hurbilak, eragina zuzena izateko; sentsibilizazio kanpainak zabaldu behar dira hedabideetan; gizonekin egon, hitz egin…

Desberdintasun arloan, genero indarkeria da gehien ikusten den arazoa, baina ez bakarra…

Bai, zoritxarrez gizon askok uste dute emakumeen jabeak direla. Berdintasuna lortuz gero, horrelako jarrerak ekidin ahal izango lirateke. Oraindik badago desberdintasunik: emakume gehiago daude langabezian, gutxiago kobratzen dute lanpostu berean, bortizkeria jasaten dute...; gizonek, aldiz, aisiarako denbora gehiago dugu, kargu garrantzitsu gehienetan gaude....

Genero-indarkeriari buruzko txostena argitaratu da. Haren ondorioetako bat izan da gazteek ez dutela identifikatzen bortizkeria psikologikoa. Kezkagarria, ezta?

Bai, ahalegin handiak egin behar izan ditu mugimendu feministak indarkeria psikologikoa salatzeko. Bortizkeriatzat jotzen ez bada, nekez konponduko da arazoa. Gazteen artean ere jarrera txarrak agertu dira, eta horrek esan nahi du lan gogorra dugula egiteko oraindik. Beste alde batetik, txosten horren arabera, gazteek uste dute bortizkeria bikote nagusien artean gertatzen dela, baina ez gazteen artean. Hori ere kezkagarria da. Oro har, txostena oso erabilgarria da lan egiteko norabidea ezartzen duelako. Desberdintasuna garai, adin eta herri guztietan dago.

Bortizkeria inguruan dagoenean, zer egin daiteke hura ekidin edo salatzeko?

Tratu txarrak jasotzen dituenak egoera horretatik irten behar du, eta horretarako, eskura izan behar ditu erakundeek eskaintzen dituzten giza baliabide guztiak. Bakoitzak zer egin ahal duen? Lehenik eta behin, bortizkeria erabiltzen duenari esan behar zaio txarto egiten duela. Eurek konturatu behar dute horrelako jarrerak onartezinak direla eta gizartean ez duela atxikimendurik.

Berdintasunaren aldeko gizonak

Gizonduz ekimena 2007ko urtarrilean sortu zen eta sexuen arteko berdintasun-prozesuan gizonek ere parte hartzea du helburu. "Orain arte hainbat erakunde (Emakunde, mugimendu feministe…) ibili dira berdintasunaren aldeko borrokan, baina ekimenak-eta emakumeei begira baino ez ziren egiten", esan du Josetxok.

Gizonduz proiektuak lekukoa hartu dio Emakundek 2001ean egin zuen kongresuari, eta gizonengan aldaketa eragiten saiatzen da. Gizonduz aitzindaria da Estatu mailan. Izan ere "baliabide eta ekintza gehien" duena da, kide honen esanetan. Halaber, "egiten ditugun ahaleginak Emakundek edo gainontzeko erakundeek egiten dituztenei gaineratzen zaizkie".

Gizonduz ekimena bi arlotan dabil lanean: batetik, sexuen arteko berdintasuna lortzeko; bestetik, betiko gizon-rola bertan behera uzteko. Horretarako, sinadura batzeaz gain, hainbat ikastaro eta programa jarri dira martxan. Azkenetako bat motxila dugu. Etorkizunean aita izango direnei banatuko zaie eta bertan sentsibilizazio materiala dago zenbait euskarritan: DVDa, ipuina, gida, jokoa, aldizkaria, pegatina...

Arkaitz Ducy, abeslaria

“Ezin naz musika barik bizi”

Erdi mailako elektrizitate zikloa ikasten badabil be, benetako grina dau musikarako. Txistua, soinua, gitarra eta *jembea* joten ditu eta gaur egun Habemus Ratas taldearen abeslaria da. Sondikarrak 18 urte beteko ditu hil honetan eta argi dauka musika biderik onena dala lagunakaz ondo pasateko.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Musika munduan sartu izanaren errua txistuak ei dau...
Instrumentu hori joten hasi eta segiduan etorri ziran besteak. Ezin naz musika barik bizi; momentu guztietan egon behar naz musika entzuten, niretzat dana da-ta. Ondo pasateko erea da eta gustura nago.

Habemus Ratas talde hasibarria da; halanda be, kontzertu bi emon dozuez jadanik. Zelan esperientzia?
Lehenengoa Sondikako gaztetxean emon genduan eta, egia esan, ez zan oso ondo atara, soinu-ekipamendua ez zalako egokia. Baina ordaindu euskuen. Bigarrena Txorierriko Gazte Egunean izan zan, Derion. Polito atara jakun, soinu-ekipamendua ona zalako.

Zer deritxozu Gazte Eguna ekimenari?
Ondo dago, Txorierriko taldeak ezagutarazoteko modu bat dalako. Eta guk be disfrutatu egiten dogu gure musikea lagunei erakusten. Espero daigun etorkizunean barriro egitea.

Zelango estiloa jorratzen dozue?
Punka eta ska. Guk sortutako abestirik ez dogu oraindino eta bertsioak egiten doguz: Barrikadarenak, Piperrak taldearenak...

Txistuak eta soinuak skagaz zerikusi gitxi daukala emoten dau lehen begiratuan...
Beno, soinua be joten dabe ska estiloan... Dana dala, danetariko musikea gustetan jat, ijitoen kantak eta guzti. Eta perkusioa, batez be. *Jembea* erosi neban ikastaro bat egin ostean, eta batzuetan parrandan be eroaten dot. Dibertigarria da.

Zein instrumentu nahiago dozu?
Soinua, oraindino zer ikasi badodalako. Besteak kontrolpean dodaz. Soinua, txistua eta solfeoaren laugarren maila atera dot; prestakuntzea Pentagrama Sondikako akademian jaso dot eta azterketa ofizialak Loroño Bilboko akademian egin dodaz. Beste alde batetik, Gorantzaileak dantza taldean be banago eta futbolean aritzen naz.

Zelan daroazu taldearen “frontman” izatea?
Gelditu ezinik nabil eszenatoki ganean. Espektakulua eskaintzen dot eta publikoa animatzea gustaten jat. Ganera, kontzertuetara lagunak etorri dira eta hareek be animatzen nabe ni. Nire saltsan nabil.

Noraino ailegatu gura?
Ez dot musikatik bizi gura. Lanpostu egonkorra gurago dot izan, musika munduan gaur goian eta bihar behean egon zaitekezalako. Musikea hobitzat dut. Bizitzea merezi dauen esperientzia dala uste dot, baina ez lehentasunezkoa.

Behar besteko laguntzarik jasoten dozue musika talde gazteek?
Guk Larrabarri Derioko baserrian egiten doguz entseguak eta eskertzekoa da. Osterantzean, lokal bat alokatu beharko geunke, eta hori intsonorizatu. Dirutzea izango zan guretzat. Halanda be, taldeei aukera gehiago emon beharko leuskiguez Txorierriko jaietan joteko, oso gitxitan gonbidatzen gaitue-ta.

> *“Gelditu ezinik nabil eszenatoki ganean. Espektakulua eskaintzea gustetan jat”*

aldekone

ALDEKONE FRUTXDENDA

ETORKI

destire

eleizalde

MARMOLGINTZA
GOYO

elekma
ELECTRODOMÉSTICOS NUEVOS CON ROCE
Primeras marcas • Precios sin competencia
Distribuidor oficial:
BOSCH, SIEMENS, BALAY, LYNX
OFERTA ESPECIAL APERTURA

Derio

• Abenduaren 21ean, domeka
11:00-14:00 eta 16:00-18:30: Aeromodelismo tailerra, frontoian. SUBYKE klubak antolatuta
• Urtarrilaren 10era arte
Derioko V. Argazki Lehiaketaren erakusketa, kiroldegian. DATk antolatuta
• Abenduaren 23an, martitzena
Irteera, Euskadi-Iran partida ikustera. Informazioa, kiroldegian
• Abenduaren 24an, eguaztena
10:00: Familia osoari zuzendutako jarduerak eta kirol jokoak, kiroldegian
17:00: Ongi etorria Olentzerori, Errekalde parkean. Tximintx euskara elkarte era Ipar-Alde abesbatzaren eskutik
• Abenduaren 26an, barikua
19:00: Hiruko areto-futbola (gizonak), kiroldegian. Pozgarri FSTk antolatuta.
19:00-21:00: Gaztaina Eguna, oinezkoentzako kalean. Sagardo dastatzea, bertsolariak eta trikitixa
20:30: Umorearen gaua, Pedro Reyesen eskutik. Gurea Aretoan
• Abenduaren 27an, zapatua
16:00: Xake Tokiko Opena, kiroldegian. Xake taldearen eskutik
• Abenduaren 28an, domeka
10:00: VII. Aldi Bereko Xakea, kiroldegian. Xake taldeak antolatuta
12:00: Euskal dantzak, kiroldegian. Lainomendi taldearen eskutik
• Abenduaren 29an, astelehena
18:00: Dantzaldia, nagusien etxean
• Abenduaren 31n, eguaztena
10:00: Familia osoari zuzendutako jarduerak eta kirol jokoak, kiroldegian
• Urtarrilaren 2an, barikua
11:30-14:00 eta 16:30-20:00: Haur jaia, kiroldegian. Puzgarriak, tailerrak eta haurren saioa
16:30-21:00: Gazteentzako ekintzak, frontoian. Samba, batukada, perkusio tailerra, jokoa eta trikimakoak.
• Urtarrilaren 3an, zapatua
10:00: Eskolako areto-futbola eta F7, kiroldegian eta futbol zelaian. Areteaga FSTk antolatuta
19:30: "Txori Herri" XXIII. Gabon-kanten festibala, San Isidro elizan. Ipar-Alde abesbatzak antolatuta
• Urtarrilaren 4an, domeka
10:00: 3 x 3 jaurtiketa libreak, kiroldegian. Derio Saski Taldeak antolatuta
12:00: "Txori Herri" XXIII. Gabon-kanten festibala, San Isidro elizan. Ipar-Alde abesbatzak antolatuta
• Urtarrilaren 5ean, astelehena
16:00: "Ezagutu eskupilota. Teknika eta praktika I" ekimena, frontoian. Atxiki pelota elkarteak antolatuta
18:00: Erregeen kabalgata, elizatik udaletxera
• Urtarrilaren 9an, barikua
20:30: Erakusleihoen Derioko III. Txapelketaren sariak banatzea, Larrabarri baserrian. Danerik Paraje! elkarteak antolatuta
• Urtarrilaren 10ean eta 11n, zapatua eta domeka
19:00: *Doña Rosita la soltera o el lenguaje de las flores* antzezlana, Gurea Aretoan. Sutondoan elkartearen eskutik
• Urtarrilaren 12tik apirilaren 13ra arte
"Herri kirolak herriz herri" erakusketa, Larrabarri baserrian
• Urtarrilaren 15etik 30era
"Herri kirolak" erakusketa, kiroldegian. Untza taldeak antolatuta
• Urtarrilaren 17an, larunbata
20:00: Irteera, *Sweeney Toods* antzezlana ikustera

Gabonetan be Txorierri bor-bor

Egubarria. Senide eta lagunakaz egoteko garaia; aspaldian ikusten ez dogun pertsona horregaz gogoratuteko garaia; atsedena hartu eta merezitako oporralditxoaz gozatuteko garaia; eta zergaitik ez, baten bat baino gehiagori buruhauste haundiak ekartuten deuskuzan garaia. Duda barik, etxeko txikienak dira Gabonak gehien disfrutatzen diranak. Baina gazteek eta helduok be badoguz hamaika aukerea jai horreetan egiteko. Txorierriko alkarteek eta Udalek ekitaldi sorta zabala antolatu dabe datozen egunotan: irteerak, antzezlanak, jolas parkeak, filmak, kalejirak, kotiloiak, kontzertuak, txapelketak... Egun guztietan zer ikusi eta zertaz disfrutatu izango dogu Txorierrin.


Sweeney Toods antzezlana





Zamudio

- **Abenduaren 22an, astelehena**

15:00 (Zamarripa plazako autobus-geltokitik): Irteera, *Winx erresuma galduaren sekretua* filma ikustera

- **Abenduaren 23an, martitzena**

15:00 (Zamarripa plazako autobus-geltokitik): Irteera, Olentzero eta oparien ordua filma ikustera

19:00: (Errepide nagusiko autobus-geltokitik): Irteera, Euskadi-Iran partida ikustera

- **Abenduaren 24an, eguaztena**

09:00: Olentzeroaren kalejira, Sabino Arana plazatik

10:00: Plater-tiro saioa, Teknologia Parkeko tiro-zelaian. Txorierri Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatuta

11:00: Hamaiketakoa, kiroldegian

12:15: Olentzero dator

13:00: Opariak banatzea, eskolan

14:30: Bazkaria, eskolan

16:00: Olentzeroren kalejira

18:00: Txokolatada, eskolan

- **Abenduaren 26tik 30era**

16:30-21:00: Gabonetako haur-parkea, kiroldegian

- **Abenduaren 28an, domeka**

19:00: (Errepide nagusiko autobus-geltokitik): Irteera, ABBA musikala ikustera

- **Abenduaren 29an, astelehena**

19:00 (Zamarripa plazako autobus-geltokitik): Irteera, *Paperezko guda* antzezlana ikustera

- **Abenduaren 30, martitzena**

20:00: "Olentzero-Gabonak, kontaiguzu" lehiaketaren sari banaketa, kiroldegian. Lagatzu euskara elkarteak antolatuta. Ostean, Txoborro magoa

- **Abenduaren 31n, eguaztena**

Irteera, Jatara. Arroeta mendi taldeak antolatuta

10:00: Plater-tiro saioa, Teknologia Parkeko tiro-zelaian. Txorierri Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatuta

01:00-05:00: Urte amaierako kotiloia, Adintsuen Etxean

- **Urtarrilaren 2an, barikua**

10:30 (Zamarripa plazako autobus-geltokitik): Irteera, Gabonetako haur-parkera

- **Urtarrilaren 3an, zapatua**

10:30 (Zamarripa plazako autobus-geltokitik): Irteera, Olentzeroren etxera

Hori Baik antolatutako ekitaldiak



- **Abenduaren 22an, astelehena**
20:00: Urtzi Urrutikoetxearen *Afrika express* liburuaren aurkezpena, gaztetxean
- **Abenduaren 23an, martitzena**
15:30: Olentzeroren bila, gaztetxean
Gabonetako haur-parkera joateko izena emotea
- **Abenduaren 24an, eguaztena**
18:00: Olentzeroren Eguna, zerran
- **Abenduaren 25ean, eguena**
19:00: Bertsolariak: Onintza Enbeitia, Arkaitz Estiballes, Unai Iturriaga eta Andoni Egaña
- **Abenduaren 26an, barikua**
15:00: Irteera Gabonetako haur-parkera, plazan
- **Abenduaren 27an, zapatua**
"Kirolariekin bat, denok Bilbora" ekimena
- **Abenduaren 28an, domeka**
Hori Bairen Eguna, ekitaldiak egun osoan zehar
- **Abenduaren 29an, astelehena**
18:00: Kubako iraultza hitzaldia, gaztetxean
- **Abenduaren 31n, eguaztena**
02:00: Gabon Zaharreko kotiloia: Kubako iraultza, gaztetxean. Brindis berezia
- **Urtarrilaren 2an, barikua**
18:00: Mahai-ingurua, gaztetxean
- **Urtarrilaren 3an, zapatua**
09:00: Auzoz auzo ekitaldia, plazan
22:30: Hip Hop-Rap-Rock gaua. Kontzertuak: FDLN eta Dj 666
- **Urtarrilaren 5ean, astelehena**
18:00: Umeentzako antzerkia eta txokolatada, gaztetxean
- **Urtarrilaren 9an, barikua**
20:00: Hitzaldia-diaporama, Gotzon Larruzea mendizalearen eskutik, gaztetxean
- **Urtarrilaren 16an, barikua**
Looking for Mr. X laburmetraia
Hudaltzainak kantak eta bertsoak

Unai Iturriaga. *Argazkia: Niko Moreno*



Larrabetzu

- **Abenduaren 23tik urtarrilaren 5era**
10:30-13:30: Ludoteka
- **Abenduaren 23a, martitzena**
Irteera, Euskadi-Iran partida ikustera
18:00: *Solalisatzen* umeentzako antzerkia, eskolako gimnasioan
- **Abenduaren 24a, eguaztena**
Irteera, Olentzeroren etxera (4 urtetik 13ra bitartekoentzat)
- **Abenduaren 26a, barikua**
Irteera, Gabonetako haur parkera (6 urtetik 13ra bitartekoentzat)
- **Abenduaren 27a, zapatua**
18:30: *Zirkus mirkus* kale antzezlana, herrian zehar
- **Abenduaren 28tik 30era**
16:00-20:00: Umeentzako puzgarriak, kiroldegian
- **Abenduaren 31, asteartea**
18:00: Ipuin kontalaria, *Lamien kutxa*, eskolako gimnasioan
- **Urtarrilaren 2a, barikua**
Irteera, Donostiako Izotz Jauregira (6 urtetik 13ra bitartekoentzat)
- **Urtarrilaren 5a, astelehena**
17:30: Umeentzako berbena, kiroldegian
18:00: Erregeen festa, Ganeko Bikotea, Gure Etxean



Ines janari-denda

Ondo pasa jaietan!

Mª LUISA JATETXEA

Lezamako Batzokia

ETORKI TABERNA

Andoni Moel
Tlfno: 6[illegible]

LARRABETZU
BIZKAIA

IRUSTA TABERNA
EGUNEROKO MENUAK
eta CAUEZ
MUSIKA ETA PARRANDA

FOTERI TABERNA

Urtea zoriontsu eta euskalduna opa dizue

larrekikili

Larrabetzuko euskara elkarteak

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

Gabon zoriontsuak lezamar eta txoricerritar guztioi

Urte barri on!

kukubiltxo

kukubiltxo.com

Loiu

- **Abenduaren 22an, astelehena**

11:00-13:00: Ludoteka, 3urtetik 12 urtera bitartekoentzat
18:00-19:30: Umeentzako V. Azoka Txikia, frontoian

- **Abenduaren 23an, martitzena**

11:00-13:00: Ludoteka, 3 urtetik 12 urtera bitartekoentzat
Instrumentu tailerra, 3 urtetik 7 urtera bitartekoentzat
18:00: *Tipiti Tapata Musika Kanta* ikuskizuna, frontoian.

- **Abenduaren 24an, eguaztena**

11:00-13:00: Ludoteka, 3 urtetik 12 urtera bitartekoentzat
Olentzero mugikorra, 3 urtetik 7 urtera bitartekoentzat
17:00: Kalejira Olentzerorekin, Klaratarretatik frontoira
17:30: Opariak banatzea, frontoian

- **Abenduaren 26an, barikua**

11:00-13:00: Ludoteka, 3 urtetik 12 urtera bitartekoentzat
Fimo tailerra, 8 urtetik 12 urtera bitartekoentzat
18:00: Txotxongiloak, Kixka taldearen eskutik. Ludotekan

- **Abenduaren 28an, domeka**

12:30: "Txori Herri" XXIII. Gabon-kanten festibala, San Pedro elizan

- **Abenduaren 29an, astelehena**

11:00-13:00: Ludoteka, 3 urtetik 12 urtera bitartekoentzat
17:30: "Loiuko Udala" XV. Gabonetako Postal Lehiaketaren sari banaketa, liburutegian
Kultura arteko tailerra, liburutegian

- **Abenduaren 29tik urtarrilaren 5era**

Liburu berrien eta Gabonetako postalen erakusketa, liburutegian

- **Abenduaren 30ean, martitzena**

09:45 (Larrondotik) eta 10:00 (Zabaloetxetik): Irteera, Gabonetako haur-parkera

- **Abenduaren 31n, eguaztena**

11:00-13:00: Ludoteka, 3 urtetik 12 urtera bitartekoentzat
Makillaje tailerra, 8 urtetik 12 urtera bitartekoentzat

- **Urtarrilaren 2an, barikua**

11:00-13:00 eta 16:30-19:30: Gabonetako haur-parkea, frontoian



- **Urtarrilaren 3an, larunbata**

19:30: Cum Jubilo Euskal Herriko Unibertsitatearen abeslari ohien eta bere semealaben emanaldia, San Pedro elizan

- **Urtarrilaren 5ean, astelehena**

11:00-13:00: Ludoteka, 3 urtetik 12 urtera bitartekoentzat
Errege tailerra, 3 urtetik 7 urtera bitartekoentzat

Lezama

- **Abenduaren 24an, eguaztena**

17:00: Olentzero Eguna: kalejira, musika, dantzak, opariak banatzea... Udalak, Zorrizketan elkarteak eta Gurutze dantza taldeak antolatuta

- **Abenduaren 29tik 31ra**

Umeei zuzendutako ekintzak. Informazio gehiago, liburutegian

- **Abenduaren 29an, astelehena**

19:30: Irteera, *Paperezko guda* antzezlana ikustera

- **Urtarrilaren 2tik 4ra**

11:30-13:30 eta 16:30-20:30: Gabonetako haur-parkea, frontoian

- **Urtarrilaren 9tik 11ra**

Irteera, Saint Lary eski-estaziora



HARRI-BILBO
HARGINTZA OROKORRA

JAN TOKI

yedra floristas

LA GUNKOR

ITXORIFERRI inmobiliaria

JATETXEA Gaztedi

CONSTRUCCIONES LANDETANE, S.L.
ANDER ETXEBARRIA

JANXRIDENDX

Larradent Poliklinika
Dietista
Podologia
Odontologia
Masajista

ZORTZI Julen Guerrero JATETXEA proiektu berria martxan da. Elkar ikusiko degulakoan eta guri proposamen berria gustoko izango duzulakoan, kalitatezko talde berriak Txoriherriko eskaintzak gustiak agurtzen zaituzte.

eguneko menua **gosariak** **wi-fi gunea**

asteburuetan, eguerdi eta gaueko menuak

enkarguzko menuak **dastapen menua**

info@zortzijatetxea.com

● **Abenduaren 21a, domeka**
15:30: Irteera, Gasteizko Izotz Jauregira (Ludoteka II eta gaztetxea)
● **Abenduaren 22tik 31ra**
11:00-14:00: Gabonetako programa, Ludoteka I eta IIn
17:00-21:00: Gabonetako programa, Gaztetxean
● **Abenduaren 22a, astelehena**
15:15: Irteera, Laudioko Zizki-mizki umeen parkera (Ludoteka I)
● **Abenduaren 23a, martitzena**
Irteera, Euskadi-Iran partida ikustera
16:15: Irteera, Olentzeroren etxera (Ludoteka I)
● **Abenduaren 24a, eguaztena**
15:00: Olentzero eta Belen biziduna, kalejira udaletxetik. Antolatzaileak: Txuma Olagüe abesbatza, Gorondagane guraso elkartea, Goraintzaileak dantza taldea, Ipar-Elaiak txistu taldea eta Udala
● **Abenduaren 26a, barikua**
11:00: Irteera, Ballonti merkataritza-guneko karts-etara (Gaztetxea)
● **Abenduaren 27a eta 28a**
12:00-14:00 eta 16:00-19:00: Txiki eguna, Goronda Beko kiroldegian: tailerrak, jokoak...
● **Abenduaren 27a, zapatua**
11:30: Cavaren dastatze ikastaroa, Kultura Aretoan IIan
● **Abenduaren 28a, domeka**
19:10 (Txorierri eta Agirre lehendakariaren etorbideen arteko bidegurutzetik): Irteera, ABBA musikala ikustera
● **Abenduaren 29a, astelehena**
10:00: Irteera, Gabonetako haur parkera (Ludoteka II eta gaztetxea)
17:00 eta 19:30: *Paperezko guda* antzezlana, Kultura Etxean
● **Abenduaren 30a, martitzena**
Irteera, zinemara (Ludoteka I eta II)
11:00: Irteera, Artea merkataritza-guneko bolalekura (Gaztetxea)
● **Urtarrilaren 9tik 11ra**
Irteera, Saint Laryko eski estaziora

Euskaraz blai, Loiun

Azaroaren 28tik abenduaren 3ra bitartean hitzordua izan genduan Txorierriko euskaltzaleok euskaragaz. Loiu konpromiso horren lekukoa izan zan eta bertako frontoian inprobisatutako eszenatokian euskaraz hazi eta bizi gura dogula itxi genduan argi. Umeei eta gazteei zuzendutako antzezlanak eta emonaldiak, bertsolariak, kontzertuak eta triki poteoa. Euskara Egunak hamaika irudi eta sentimendu itxi deuskuz begi-sarean zein bihotzean. Horreetako batzuk ekarri deutsueguz orri honeetara. Ganera, ezin dogu ahaztu Txorierriko gainontzeko herrietan be ekitaldiak antolatu dabezala alkarteek, euskaltegiek, liburutegiek eta erakundeek; erakusketak, antzezlanak, hitzaldiak eta afariak, euren tartean.

Argazkiak: Itxaso Marina, Gaizka Eguskiza, Ohiana Astobieta eta Txorierriko AEK

Zintzoren ametsa antzezlana

Bota patsa antzezlana

Txan magoa

Patxin eta Potxin pailazoak

Etxahun Lekuek, Xabi Payák, Sebastián Lizasok eta Andoni Egañak bertsoak bota ebezan



Triki-poteoa

AEK-k antolatutako afaria

Mascotas

- Ilea makinaz moztea
- Ilea artaziez moztea
- Parasitoen kontrako bainua
- Stripping





Maider



- Etxe-abereak
  arrainak
  narrastiak
  marraskariak
  txoriak...

- Osagarriak
- Jaki bizirik
  eta zure maskotak
  erabili ahal duen guztia



Forbea, 3 | 48100 Dario | 94 404 21 80

"Bon appétit" filmaren zati bat Txorierrin grabatu da

On egin!

Loiuko txalet bat eta Zamudioko Gaminiz jatetxea aukeratu dituzte *Bon Appétit* filmaren arduradunek, pelikularen eszena batzuk han filmatzeko. Txorierritar gehienek ez dute horren berririk izan, beharbada, baina AIKOR! aldizkaria filmazioan egon da eta lantaldearen kide batzuekin hitz egiteko aukera izan du.

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza

Goizeko 11ak dira. Zamudioko Gaminiz jatetxeko kafetegian neska gazte batek "isilik" oihukatu du eta bezeroak, zintzo-zintzo, tutik ere esan gabe geratu dira. Minutu pare bat geroago "moztu egin dugu, eskerrik asko" esan du neskak, eta algarada nagusitu da berriro barraren aurrean. Gaminiz jatetxea pil-pilean dago, baina ez betiko moduan lapikoei darien lurrun eta usainagatik; lokala kamera, argi, teknikari eta aktorez beteta dagoelako baizik. Izan ere, *Bon Appétit* pelikularen zati bat Aitor Elizegiren sukaldean filmatu dute. Suitzako nazioarteko sukaldaritza eskola bateko hiru ikasle gazteen gorabeherak izango ditugu ikusgai zinemetan datorren udan.

Baina zergatik Gaminiz jatetxean? Aitor Elizegi sukaldariak eman digu erantzuna. "Lagun batek filmaren ekoizpen-sailean egiten du lan, eta jatetxe bila zeudela esan zidan. Etorri ziren eta gustatu egin zitzaien". "Jantokia atsegin dut eta sukaldea zabala da. Gainera, Bilbotik gertu egotea nahi genuen, eta etxeko sukaldaritza eta sukaldaritza garaikidea uztartzea", esan du David Pinillos zuzendariak. Benetako jatetxean filmatu ez balute, estudioan dekoratuak egin beharko zituzketen eta garestia izango zatekeen. "Eta ez zatekeen hain egiazkoa izango. Istorioak benetakoak izatea nahi dut", dio Pinillosek.

Sukaldea eszenatokitzat uzteaz gainera, filmean parte hartu ere egin du Elizegiren taldeak. Agerpen txikiren bat egin –"ez dakit azkenean agertuko den ala ez", dio irribartsu sukaldariak– eta menuak asmatu dituzte. Era berean, sukaldarien jokabideari buruzko aholkuak eman dizkiete aktoreei eta zuzendariari. "Kontrolpeko kaosa izan da. Gogorra, baina aldi berean disfrutatzeko modukoa. Etorkizunean kontatuko dugun istorioa bizitzeko aukera eman digu filmak. Plateraren batean, kartan-edo... pelikularen aipamena egingo dugu, beharbada ", adierazi digu Elizegik.

> *"Unax Ugalde da filmaren aurpegirik ezagunena. Udarako estreinatuko omen da"*

> *"Sukaldea, sukaldaritza eta Bilbotik gertu izatea izan dituzte aintzat jatetxea aukeratzeko orduan"*



Wackerle du izena pelikularen jatetxeak. Gaminizekoek pegatina utzi dute jatetxean orogairri

Xarma bertan behera gelditu da

Lantaldearen artean oso giro ona dago: Pinillosek argibideak eman dizkie aktoreei, baina eurek iritzia emateko aukera ere izan dute. Besteak beste, argia, enkoadraketa eta makillajea zuzentzen dira probasaioen eta harraldien artean, eta langile guztiak prest agertzen dira lana azkar egiteko. Hala ere, zinemaren xarma eta distira bertan behera gelditzen dira filmatze-egunetan: egunero 10 ordu ematen dute lanean –eta Hego Amerikan, esaterako, denbora handiago–; atsedenaldi asko izaten dira eta, batzuek lan egiten duten bitartean, besteek euren txandari itxaron behar diote. "Askotan oso aspergarria izaten da", esan digu figurante batek.

Aktore hori ez da famatua; hala ere, aurpegi ezagun bat dugu pelikulan, Unax Ugalde gasteiztarrarena, hain zuzen ere. Berarekin batera, Nora Tschirner, Giulio Berruti eta Herbert Knaup aktoreak aritzen dira. Castinga ez ezik, gainerako lan taldea ere da nazioartekoa. Ez da kasualitatea izan, zuzendariak hala nahi izan duelako. "Filma txikia da, baina leku batetik bestera ibili gara. Nazioarte mailan gertatzen da istorioa, eta halako pelikula bat ere nahi dut nik". Gaminiz jatetxean filmatzeaz gain, Landatxuetako txalet batean (Loiu), Negurin, Bilboko Zazpikaleetan, eta Sopelako El Peñón tabernan ere ibili da pelikularen taldea. Gainera, Munichen eta Zurichen ere grabatu dira irudiak.

Film hau, 2,8 milioi euroko aurrekontua duena, Espainia, Suitza eta Alemaniaren arteko koprodukzioa da. Batetik, horrek diru gehiago ekartzen du; baina, bestetik, partaide bakoitzak baldintzak jartzen ditu. Alemanian egingo da postprodukzioa, esaterako. Dena dela, "guztia negoziagarria da", Juanma Pagazaurtundua ekoizpen-zuzendariaren hitzetan. Beste arazoa komunikazioarena da, 11 herrialdetako lagunak egon baitira pelikulan lanean. "Dena dela, jarrera ona dugu eta ingelesez eta gainerako hizkuntzen arteko nahasteaz baliaturik, arazo handirik gabe ulertzen diogu elkarri". Filmaren zatirik gehiena ingelesez filmatu da.

Guztira, 40 lagunek osatzen dute *Bon Appétit* filmaren lan-taldea. Ez da makala, baina Estatu Batuetako pelikula handi batean "170 pertsonek egiten dute lan", dio Pagazaurtunduak. Zinemari dagokionez, Ipar Amerikako industriaren egoerak ez du zerikusirik Euskal Herrian edo Estatuan dagoenarekin. "Oso zaila da Hollywooden kontra lehiatzea, baliabide gehiago dute-eta. Film gehienak ganorabakoak dira, agian, baina jendeak ikusten ditu. Guk, ordea, ezin dugu izugarrizko efekturik egin, ezta marketinkanpaina handirik zabaldu ere; beraz, film mamitsuak egin behar ditugu".





Unax Ugalde, aktorea

“Nire herrian lan egitea gustatzen zait”

Gustura dabil Unax Ugalde (Gasteiz, 1978) lapikoen artean. Hori dela-eta, primeran datorkio aktoreari *Bon appétit* pelikulan egiten duen sukaldaritza ikasle euskaldunaren papera. Filmazioaren atseden batean harrapatu dugu, eta atseginez erantzun die gure galderei.

Zein da zure papera pelikulan?
Euskal sukaldari baten papera egiten dut: hura Suitzara joan da jatetxe ospetsu batera lan egitera. Komedia erromantikoa da: alde batetik, gizonen eta emakumeen arteko harremanak lantzen ditu, eta bestetik, sukaldaritza.

Zer da gehien erakartzen zaituena paper horretatik?
David Pinillosen lehenengo filma izan arren, oso zuzendari ona dela uste dut. Gidoia zein aktoreak –nazioartekoak guztiak– ere oso interesgarriak dira, eta egitasmo polita da, nire ustez. Beste alde batetik, sukaldariarena egitea, eta neure burua sukaldari moduan prestatzea ere polita izan da.

***Amar en tiempos de cólera, La buena nueva, El Ché*... Lanpetuta zaude. Atsedena noizko?**
Gure ogibidea ez dabil oso ondo gaur egun, eta etorri ahala egin behar duzu lan. Batzuetan ez dago lanik, eta lana dagoenean aprobetxatu egin behar duzu. Film hau bukatu ondoren Mexikora joango naiz, ziurrenik. Oporrak abuztuan hartuko ditudala uste dut.

“El Che”-ri buruzko pelikulan hartu duzula parte aipatu dut lehen. Zelan izan da?
Oso erakargarria izan da, aktore handiekin lan egin dudalako. Gainera, Estatu Batuetan dirua dutenez, baliabide asko eta denbora luzea erabil ditzakete lan egiteko. Eta dirua da, alegia, gaur egungo zinema europarrak faltan duena. Lehengo egunean irakurri nuen Interneten jendeak ez dekiela hemen zergatik ez diren egiten film edo produkzio handiak. Erantzuna erraza da: hemen ez dago dirurik, ezta produkzio-etxerik, ezta publikorik ere. Dugunarekin egin behar dugu aurrera.

Ez da Hollywooden duzun lehenengo esperientzia. Bertan pelikula gehiago egiteko asmorik baduzu?
Baditut proiektuak Estatu Batuetan, eta beste batzuk ere izan ditut –*Amar en tiem-*

> *“Hemen ez dira film handiak egiten diru, produkzio-etxe eta publikorik ez dagoelako”*

> *“Komedia erromantikoa da filma: harremanak eta sukaldaritza lantzen ditu”*




Gabonetan be euskeraz bizi
ZORIONAK
LIGATZU
zamudica euskeraz?
hobe ez!


Zorionak eta urte berri on
egiteko konpromisoari

tiktak
EQUIPO ZABALIK

LARRABETZU AURRERA
Euskal Herria AURRERA
Josu, Jose Miguel
Larrabetzu libre

ASESORÍA

LARRABETZUKO ESTANKOA

Goiri '78 S. L.

Taxiera

dribbling sport

ESTILISTAK


LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN


pro audio

BABE - EDER

> *“Ez ditut Benicio del Toro edo Natalie Portman izarrak balira moduan ikusten; lankideak eta lagunak dira”*

> *“Momentuz oso ondo nago aktore lanetan, baina ziur nago egunen batean zuzenduko dudana”*

pos de cólera, esaterako–. Komertzialak izan dira oro har: batzuk oso erakargarriak, eta beste batzuk ez hainbeste; hau da, batzuetan diru asko egon da, baina buru gutxi. Eta hemen ere badaude proiektu politak, txikiak, euskaraz ere bai... Gainera, nire herrian egiten dut lan, eta hori erakargarria da.

Badirudi aktore bat Hollywooden aritzen ez bada, bere lanak garrantzirik ez duela. Zuk Europan ere lan egin duzu...

Bai. Europan oso zine interesgarria egiten da, eta proiektu askotan sartzea gustatuko litzaidake. Baina, Estatu Batuetan ere gauza interesgariak egiten dira. Lan gehiena Latinoamerikatik etortzen zait –Mexiko, Argentina, Colombia–, eta urtean behin joaten naiz pelikularen bat egitera. Gogorra da bertan bakarrik egotea lau hilabetean.

Zure ibilbidea pixkanaka-pixkanaka egin duzu; hau da, ez duzu egundoko paperarik egin, baina pelikula eta telesail askotan ikusi zaitugu...

Nire agentearekin egiten dut lan. Lehen beste bat nuen, baina orain aldatu egin dut eta oso gustura nabil. Eta berari esana diot nik aktorea izan nahi dudala betiko. Ibilbidea luzea da, eta proiektuak ondo aukeratu behar dira: interesgarriak badira, aurrera, egin egiten ditut. Pausuak eman behar ditut, baina presarik gabe. Horregatik, ezin zara aldizkari guztietako lehenengo orrialdeetan agertu. Bestela, “erre” egiten zara.

Filma inglesez egiten da, batez ere, eta zuk euskaraz eta gaztelaniaz ere jardun duzu. Zaila da arrotz egiten zaizun hizkuntzatan lan egitea?

Bai, oso zaila da. Izan ere, inprobisazioa oso inportantea da nire ustez, eta euskaraz ere inprobisatzea zaila egiten zait. Beti ibili izan naiz euskaraz, hau da, natural ateratzen zaidan hizkuntzan. Ingelesez lan egiten dudanean gidoia ikusi behar dut eta zerbait bururatzen bazait, *coach*ari –ingelesezko tutorea– galdetu behar diot: “Aizu!, nola esaten da hori?”. Ez, ez da batere erraza beste hizkuntza batean egitea.

Lehen film batzuk aipatu ditugu eta hor Julianne Moore, Benicio del Toro, Viggo Mortensen edo Natalie Portmanekin ibili zara, besteak beste. Zein da gehien harritu zaituena, edo bereziena dena?

Egia esan, Julianne Moore emakume itzela da, oso neska jatorra eta kide ona da; Natalie Portmanek ere ederto hartu ninduen. Nire lehenengo pelikula ingelesez berarekin egin nuen, eta esaldiren bat ahaztu egiten zitzaidanean berak esaten zidan. Viggo eta Benicio ere oso jatorrak dira. Zortea handia izan dut, topatu ditudanak oso atseginak izan direlako. Nik ez ditut izarrak balira moduan ikusten, lankideak eta lagunak dira guztiak.

Gasteiztik Madrilera joan behar izan zenuen lan egitera. Madrilera joatea beharrezkoa da benetan aktore lan egiteko?

Estatu honetan dena dago zentralitatuta. Aktorea izanda, muga duzu Euskal Herrian kanal autonomikoa edo antzerkia, hain zuzen ere. Berton, zinematografia-produkzioak ere egiten dira, baina gehiena Madrilen dago: castingak, esaterako, bertan egiten dira, nahiz eta gero filmazioa hemen egin. Beraz, gauza interesgarriak egin nahi izanez gero, Madrilera joan behar da.

Baten batek esan zuen aktore on guztiek dute zuzendaria izateko grina. Zuk ere baduzu halakorik?

Bai, noski. Aspalditik zuzendu nahi izan dut. Baditut nire gidoiak idatzita, eta inoiz zuzenduko ditut. Dena dela, errespetu handia diot zuzendaritzari, asko ikasi eta gauza asko kontrolatu behar dela uste dudalako. Momentuz oso ondo nago aktore lanetan, baina ziur nago egunen batean zuzenduko dudana.

CURSOS GRATUITOS 2008-2009
DOAKO IKASTAROAK 2008-2009

Behargintza Txorierri

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Data: Otsailaren 17a – Martxoaren 31a
Ordutegia: Astearte, Asteazken eta Ostegunetan / 18:30etatik 20:30era

FAKTURAZIO-KUDEAKETA ETEN

Data: Martxoaren 30a –Ekainaren 03a
Ordutegia: Astelehen eta Asteazkenetan
18:30etatik 20:30era

KUDEAKETA ETA KALITATEA ETEN

Data: Martxoaren 30a – Ekainaren 15a
Ordutegia: Astelehen eta Asteazkenetan
18:30etatik 20:30era

AURREKONTU-KONTROLA ETEN

Data: Martxoaren 31a Maiatzaren 28a
Ordutegia: Astearte eta Ostegunetan
18:00etatik 20:30era

ESTETIKAKO ESPEZIALIZAZIOA: AZAZKAL-PROTESIAK ETA AERÓGRAFO BIDEZKO MAKILLAJEA

Aurreikusitako data: 2009ko urtarrila

KONTABILITATEKO PLAN OROKOR BERRIRA ETA HORREN ZERGA-ONDORIOTARA EGOKITZEA

Aurreikusitako data:
2009ko otsaila-martxoa

PRESTO IKASTAROA

Aurreikusitako data: 2009ko martxoa

Informazio gehiago eta inscripcion
BEHARGINTZA TXORIERRI - TORMENTA ERIA
Kanalaga mendebaldeko 13 A. Sondika (Bizkaia)
Tel. 94/453.63.78 – Fax: 94/453.13.64
[illegible]

[illegible]
[illegible]

Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako bidean

Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna parte-hartze ekonomikoan, politikoan eta sozialean muga sexistarik ez egotearen ondorioa izan behar da. Hura berdintasun printzipioetan oinarritzen da, eta jendartean ematen diren emakume eta gizonen arteko desberdintasunak zuzentzeko beharra dakar. Era berean, emakumeak eta gizonak hainbat eremutan (ekonomikoa, politikoa, parte-hartze soziala eta erabakiak hartzen diren guneak) eta ekintzatan (hezkuntza, trebakuntza eta lana) berdintasunean arituko direla bermatzen du.

Berdintasuna lortzeko bidean aldaketa garrantzitsuak eman dira azken urteotan. Baina estatistiketan (soldata desberdintasunak, indarkeria matxista...) eta egunerokotasunean (emakumeen hilketak, erasoak...) azaltzen den moduan, lan handia dago egiteko oraindik.

Txorierriko udalek ere adierazi dute berdintasunaren bidean urratsak emateko nahia. Behargintzaren Berdintasun Zerbitzuaren laguntza teknikoaren bitartez, udal bakoitza herriko Berdintasun Planaren Diseinuaren kudeaketan aritu da 2008. urtean. Eta gaur egun ere lanean dabiltza toki administrazioan genero-politikak ezartzeko.

Zer da Berdintasun Plana? Genero ikuspegitik planifikatutako ekintza multzoa da, eta emakumeek bizitza sozial eta laboralean berdintasun egoeran sartzeko dituzten zailtasunei eta oztopoei aurre egitea du helburu.

Zergatik emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko plana?

–**Oinarrizkoa den berdintasun eskubidea praktikara eramaten ez bada, ezin dugulako jendartea demokratikotzat hartu**. Eskubide hori praktikara eramateak modu justu eta aukera berdintasunean garatutako emakume eta gizonen arteko elkarbizitza ahalbidetzen du, sexuagatiko diskriminazioa eta genero-desberdintasunak ezabatuz.

–Emakume eta gizonen arteko desberdintasunak **herritartasun eskubidearen** kontra doazelako. Egoera horrek jarraitzen duen heinean, emakumeek ezin izango dute euren burua eskubide osoko herritartzat jo. Eta horregatik beharrezkoa da toki administrazioak esku hartzea, berdintasunaren sustapenerako programa eta ekintza multzoa martxan jarriz.

–**Legeek exijitzen dutelako.** Autonomikoak (Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legea), Estatukoak zein Europakoak.

Eta azkenik, zertarako berdintasun planak? Zein helbururekin egiten dira?

–Genero-desberdintasunak eta sexuagatiko diskriminazioak deuseztatzeko.

–Jendarte justuagoa eta kohesionatuagoa lortzeko, eta ekonomikoki zein sozialki garatuagoa dena.

–Herritarren berezko eskubideak osotasunean gauzatzeko.

Berdintasun planen diseinu eta inplementazio prozesuan eskualdea osatzen duten agente ezberdinen parte-hartzea oso garrantzitsua da; hau da, agente politiko, udal langile eta herritarren parte-hartzea. Horien guztien iritziek eta iradokizunek ahalbidetuko dute Berdintasun Plana udalerrien behar eta errealitatera egokitzea eta ondorioz, elkarbizitza hobetzea.

Testua: Aitziber Goitia, Behargintza Txorierriko Berdintasunerako Zerbitzuaren arduraduna

Behargintza Txorierri

BEHARGINTZA TXORIERRI
Berreteaga Poligonoa 13 – A
48150 – Sondika (Bizkaia)
Tfnoa.: 94.453.63.70
www.e-txorierri.com

Zapatozak eta urte berri on!!
Euskal dantzak LAINOMENDIrekin
Abenduaren 28an 17:00tetan
DERIOko kiroldegian

C.D.H. LOS AMIGOS
DEL CABALLO
Ikasturtea
Bizitzen eskolak zaintzen
Urte osoan zehaltz
ESPECIALITATEAK: SIMAL, 8 ORTETIK GORA

Bocateria
otarteko
Pizzeria


USTERRAK
TABERNA

CAFETERIA
CENTURION
Espezialitateak:
gozari eta pintxoak

TOLDOS
TXORIERRI
- Lona industrialak
- Sareak
- Eguzki-ohialak
- Alokazioko lonak
Gaztelondegi ondoan

Clínica Sandika
Dental

Bizkaiko 15 abesbatza arituko dira Gabonetako musikaldian

Ipar-Alde Derioko abesbatzak 23. aldiz antolatu du aurten "Txori-Herri" Gabon-kanten Jaialdia. Bertan Bizkaia osotik etorritako 15 abesbatzak hartuko dute parte, eta guztira 250 abeslaritik gora izango dira.

Testua: Itxaso Marina / Argazkia: María Larrondo

AIKOR! aldizkariaren abenduko alea kalean egon orduko kontzertuak egin dira Sondikan, Larrabetzun eta Lezaman; hala ere, Gabon-kantez gozatzeko aukera Zamudion, Loiun eta Derion izango dugu oraindik. Emanaldiak egun hauetan eskainiko dituzte: abenduaren 21ean, 12:30ean, Zamudioko San Martin elizan; eta abenduaren 28an, 12:30ean, Loiuko San Pedro elizan. Derion kontzertu bi emango dira. Bata urtarrilaren 3an izango da, arratsaldeko 19:30ean, San Isidro elizan; eta bestea urtarrilaren 4an, 12:00etan, leku berean. Derioko emanaldietan 15 abesbatza izango dira; zortzi, lehenengo egunean; eta zazpi, bigarrenean.

Musikaldiaren aurtengo edizioan parte hartuko duten koralak hauek dira: Euskeria, San Luis Beltran, Arraizpe, Ingenierien Korua eta Garaizarko Matsorriak abesbatzak (Bilbokoak); Burtzeñako Bengoelea abesbatza (Barakaldo); Txuma Olagüe abesbatza eta Olagüe talde korala (Sondika); Kirikiño abesbatza (Mañaria); Amatza korala (Sestao); Zornotza korala (Zornotza); Gaztelumendi abesbatza (Larrabetzu); Zamudioko Kamara Korala (Zamudio); Ekidazu abesbatza (Lezama); eta Ipar-Alde abesbatza (Derio).

Jaialdi bakarra Bizkaian

Gabonetako musikaldia Txorierriko hitzordurik inportanteenetarikoa ez ezik Bizkaikoa ere bada, izan ere, lurralde osoan ez dago beste jaialdirik Gabon kantak ardaztzat dituenik, ezta hainbeste jende mugiarazten duenik ere. Txorierriko abesbatza guztiek hartzen dute parte jaialdian urtero, eta, salbuespenak salbuespen, Bizkaiko koru gehienak pasatu dira handik. Araba eta Castroko abesbatzak ere gonbidatu dituzte inoiz.

"Lehenengo edizioa antolatu zenean argi ezarri genuen jaialdiaren filosofia: Gabon-kantak eskainiko ziren, kontzertu bakoitzean hiru abesbatza arituko ziran, eta bakoitzak 20 minutuko emanaldia egin.

> *"Ohiko Gabon-kantez gainera, konpositore gazteen abestiak zein Hegoamerikakoak sartu dira errepertorioan"*

Gainera, ahots ezberdinak egoten ahaleginduko ginen: umeak, ahots baxuak eta mixtoak", azaldu digu Jose Luis Larrondo Ipar-Alde abesbatzaren presidenteak.

Abesbatza zein errepertorio aldetik kalitatea eskaintzen du musikaldiak urteo-urtero. Koruak Gabon-kantak ez errepikatzen saiatzen dira eta errepertorioa ere gero eta aberatsagoa da. "*Hator, hator* edo *Haurtxoa sehaskan* moduko kantez gainera, Bizkaiko konpositore gazteen abestiak zein Hegoamerikakoak hasi dira abesten". Kontzertu bakoitzaren amaieran *Mesias sarritan* batera abesten dute korukideek. Interpretazioa askoz hunkigarriagoa da Derion, bertan jaialdian parte hartu duten abesbatza guztiak batzen dira-eta.

Musikaldiak nobedadea ekarriko digu aurten. Parte-hartzaileei metakrilatozko oroigarria eman zaie aurreko edizioetan, eta, hemendik aurrera egurrez egindako fa klabea jasoko dute. Beste alde batetik, 25. urteurrenari begira festibalaren diskoa ateratzeko asmoa dutela aipatu digu Larrondok. "Txori-Herri" Gabon-kanten jaialdiak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Txorierriko Udalen laguntza du.



PROMOCIONES ESPECIALES NAVIDAD 2008

AQUI MISMO - EN EL TABRIERRI - TE ASESORARAN LOS MEJORES PROFESIONALES - CON EL MEJOR SERVICIO POST/PRE VENTA

RPM MAYORISTAS INFORMATICOS - INFORMATICA - TV - VIGILANCIA - MANTENIMIENTO - SERVICIO TECNICO -

EL PORTATIL 10" MAS BARATO DEL MUNDO

PLATAFORMA CENTRINO 2

USB - BLUETOOTH
WEBCAM INTEGRADA

499€ IVA INCLUIDO

PC ESPECIAL "NAVIDAD 08"

MONITOR 19" SAMSUNG

590 IVA INCLUIDO

EEE KEYON 10"

MINI PC 10,2"
WEBCAM INTEGRADA
BLUETOOTH/ SONIDO /MIC
WIFI/ WEBCAM/ USB
SALIDA VGA/ LECTOR TARJETAS

160 GB / 1GB RAM 399€ IVA INCLUIDO

320 GB / 2GB RAM 449€ IVA INCLUIDO

MONITOR 19" SAMSUNG

PLATA
1440*900
5 MS

109

TELEVISORES AOC

LCD, 2 AÑOS GARANTIA

ARRASAMOS EN PRECIOS

26" con TDT. 299€ IVA INCLUIDO

42" con TDT. 699€ IVA INCLUIDO

TV SONY 32"

575 INSTALADO

MONTENDO DS DIVERSOS COLORES

125 IVA INCLUIDO

MONTENDO WII + WII SPORTS

249 IVA INCLUIDO

PSP + PIANO BLACK

149 IVA INCLUIDO

ACCESORIOS WII, MONTENDO, PSP

20€ A. ACCESORIOS WII

45€ VOLANTES WII

6€ 4 PUNTERAS WII

5€ FUNDAS WII / PSP

MAS DE 30 ACCESORIOS EN STOCK

LAPIZ DE MEMORIA -PENDRIVE

4 Gb 11€ IVA INCLUIDO

MICRO SD + ADAPTADOR

4 Gb 11€ IVA INCLUIDO

PROYECTOR + PANTALLA 30" 200

AUDIO INTEGRADO

499 IVA INCLUIDO

MP4 TODOS LOS COLORES

MP4 COLORES 2, 4, 8, Y 16GB

MP4 COLORES 2GB

34€ IVA INCLUIDO

500 mts a su servicio
RPM MAYORISTAS INFORMATICOS
POLIGONO PINAR 3C NAVE-5- ZAMBRIA-
TEL: 941 521 501 - Email: rpm@rpmmayoristas.com

Jose Mari Legarreta, misiolaria

“Ahalegina egiten dogu herri bezala alkar maite dagien”

Basauriar fraidea, San Viator ordenakoa. Bere ama Lezamako Iturribarri baserrikoa zan, eta bere osaba bat, Larrabekoa. Peruko Amazonia lurraldeetatik dabil misiolari lanetan. Geure artean izan da eta bere testigantza eredugarria eta interesgarria jasotzeko aprobetxatu dogu.

Testua: Pospolin / Argazkiak: Jose Mari eta Pospolin

Labur-labur, nondik nora joan da zure bizitza?

Basaurin jaio nintzan, 1937ko maiatzaren 14an, gerrako bonben astrapala eta ostaltzeko joan-etorrien azpian. Nire aita “La Vasconia” lantegiko langilea zan, eta ni zazpi neba-arreben arteko bosgarrena. Beste gehienek legez, txarto pasatu genduan umezaroan. Sei urtegaz Arizko eskolara hasi nintzen eta hamarregaz Vasconiako langileen semeentzat zan San Viator ikastetxean onartu ninduen. Egun ha, nire etxeko une oso pozgarri moduan daukat gogoan. Hiru urtez ikastetxean egon ondoren, San Viatorreko kide izateko gonbitea jaso neban. Nik, hori zer zan ondo jakin barik, irakasleen izakerea eta bizi modua gustokoa nabanez, baietza emon neutsen.

Zein da Lezamagaz daukazun hartuemona?

Nire Lezamarekiko erreferentziak oso argiak dira: ama Iturribarri baserrian jaioa zan eta aitaren parteko osaba bat Larrabekoa. Txikitan, 6-7 urtegaz Larrabera joaten nintzan eta geroago, 10-12 urte bitartean Iturribarrin oso pozik igarotzen nebazan nire oporraldiak, behiak jagoten, txarrientzako jatekoa prestatzen… eta olgetan.

Eta abadetzarako ibilbidea?

Hamairu urtegaz Eskoriatzako gure seminarioan sartu nintzan. Gero Sopuertan, Zaragozan, Gasteizen…, magisteritza, unibertsitate aurreko eta teologia ikasketak burutu arte. Sevillan ordenatu nintzan abade, 1968an Eukaristia kongresu bat aprobetxatuz, eta nire anaia bi han egozelako beharrean eta bizitzen. Nire gurasoentzat lehenago ezineko eztei-bidaia bihurtu zan, bitan pozgarria, seme baten abadetza eta beste seme biri bisita-bidaia.

Hortik aurrera, zer?

San Viatorreko abade bihurtu nintzan. Jendeak jakin behar dau gure kongregazinoaren ezaugarri nagusiak xumetasuna eta txiroei laguntasuna emotea direla. Gero, hor ibili naz gure formazio zentroetan zehar irakasle, bokazioen sustatzaile, gazteen animadore, abesbatzaren eragile… Erromara be joan nintzan ikastera, gero zortzi urtez gure kongregazioaren Espainiako nagusia izateko… Madrilen be egon nintzan urte betez, teologia ikasketak freskatzeko, eta, bide batez, *oin-erreflexologia* ikastaroak egiteko. Beti esaten dot hiru zutabe direla nire bizitzan: lehenengoa pertsona izatea, bigarrena San Viatorreko kide izatea eta hirugarrena *oin-erreflexologia* ikasi izana. Azken honek be gizatasun esperientzia handia emon deust, bai pertsonakaz tratuan ibiltzeko eta baita giza gorputzak osatzeko dituen bideak arakatzeko.

Zelan bururatu jatzun 65 urtegaz misiolari joatea?

Pentsatu neban beste gauza bat egiteko eta aldatzeko momentu ona zala. Eskatu neban Afrikako Burkina Faso edo Boli Kostara (frantses hizkuntzagaitik), osterantzean Hego Ameriketara joatea. Peruko mendilerroan dagoen Yungay izeneko herrira bialdu ninduen, eta han urte bete eta erdiz egon ondoren, estatu bereko ohianera, Tamshiyacura, aldatu behar izan neban. Handik ibili naz azken 5 urteotan. Meza eta erlijio kontuetatik aparte, laguntza eta aholkularitza zereginetan ibilten naz, bai hezkuntza zentroetan eta bai parrokia

Tamshiyacu-Lezama proiektua

“Azkenengoz Lezamara etorri nintzeneko txispa baten ondorioz sortu zan proiektua. Tamshiyacun, Lezaman bezala, Ama Birjinaren zaindari-jaiak ospatzen doguz irailaren 8an. Hori atxakiatzat hartuta, adiskidetze edo, frantsesek esaten daben moduan, “jumelage” antzeko bat egin leitekeela pentsatu neban. Ideia bota eta Zorrizketanekook hartu dozue, zorionez. Hasteko ez da gauza handirik behar, alkar ezagutzea, alkarrenganako adiskidetasun eta sentsibilidadea izan daitekez helburuak. Gero gerokoak. Eta zuetariko batzuk hara bazatoze, hangoa ezagutzera, ederto!, zuek izango zarie Tamshiyacuren sustatzailerik onenak. Baina etortzekotan, batez be ikastera etorri, ez etorri jauntxo edo tribu-buru modura. Ia datorren udarako danon artean bidaiatxu bat antolatzen dogun!”

Argazki erakusketa eta proiektuaren zehaztasunak

Lezamako Kultur Aretoan, abenduak 21 (12:00-14:00), 24 (17:00-19:00), 28 (12:00-14:00), 31 (17:00-19:00), urtarrilak 4 (12:00-14:00).

Zorrizketan Euskera Alkartearen eskutik

osoan, ahal dodan neurrian *oin-erreflexologia* terapiaren aplikazioa alde batera itxi barik.

Zelangoa da hango testuingurua?

Nire parrokia osatzen daben 90 komunidadeetatik ez da geratzen tribu aborigenik, galdu dira bertako hizkuntzak espainolaren indarrez. Beste parrokia batzuetan, ostera, gehienak dira bertako lehenengo biztanleetarikoak. Guk antolatzen ditugun katekesi ikastaroetan ekiten deutsogu neska-mutil bakoitzak bere sustraiak bilatu dagiezan. Baditugu espezialista batzuk horretan laguntzeko, karantza, abizen eta beste ezaugarri batzuetatik familia edo tribu batekoa edo bestekoa dan jakiteko. Batzuek ez dabe gura eta ez dabe onartzen nondik datozen agertzerik. Guk, ostera, ahalegina egiten dogu herri edo arraza bezala alkar maite dagien.

Eta zer dino historiak?

Ez da asko idatzi hango historiaz. Laburlabur azalduta, Amazonas deskubritu ebenetik inbasioaren eta jatorrizko produktu naturalen ustiapenaren kontakizuna da. Orain 125 urte sortu zan Tamshiyacu, kautxuaren produkziorako bertako tribuei lurrak kenduz. Gitxi batzuentzat aberastasuna eta bertakoentzat txikizinoa eta hiltzea suposatu eban honek. Kautxuaren ustiapenak behera egin ebanean, ingelesen bitartez beste lurralde batzuetan (Java, Sumatra…) merkeago emoten zalako, pizti-larruaren komertzioa etorri zan, XX. gizaldiaren erdirantz. Oraintsuago arrain koloretsu apaingarrien hazkuntza eta salmenta be sartu da. Eta hemen dator larriena: esaten da Tamshiyacu petroleo poltsa handi baten gainean dagoela eta badakigu horren ondorioak zeintzuk izango diran. Jendea kontzientzia hartzen hasi da horrek dakarren batzuentzako aberastasunaren eta besteentzako kutsaduraren gainean. Amazoniaren deforestazioaren arazo larria be hor dago. Eta azkenik, etorkizunerako beste arazo bat be etorriko jakulakoan gagoz: munduan ur gozoaren urritasuna dala eta, hasi dira Estatu Batuak posizinoak hartzen: ura be kenduko deuskue!

Zeintzuk dira gizon hain dinamikoaren etorkizunerako proiektuak?

71 urte ditut, eta, askotan esaten dodanez, iraungitze-data daukat. Orain ondo sentitzen naz, eta beste urte birako han geratzea eskatu eta baimena lortu dot. Ez dakit azkenak izango diran ala ez, nire osasunaren, familiaren eta proposatzen deustienaren arabera esan beharko da.

> *“Hiru zutabe dira nire bizitzan: pertsona izatea, San Viatorreko kide izatea eta oin-erreflexologia ikasi izana”*

Tamshiyacu *

Estatua: Peru; eskualdea: Loreto; herrialdea: Maynas; barrutia: Fernando Lores; herria: Tamshiyacu. Amazonas ibaiaren hertzean kokatuta, 03º 29′ 57″ hego latitudean eta 73ª 02′ 24″ mendebal longitudean. Klima tropikala, beroa eta hezetasun handikoa. Arratsalderako freskatu egiten du ibaiak dakarren haizetxuaren eraginez. Barrutiak 22.000 biztanle baditu, Tamshiyacun 8.000 aldera batzen dira. Jose Mariren parrokiaren ardurapean 18.000 eliztar geratzen dira. Parrokiaren lurraldea Bizkaia osoa baino zabalagoa da. Gehienak nekazaritzatik bizi dira. Kalitate handikoak dira ananak eta humariak. Yuka, bananak eta artoak be ondo emoten dira. Hara joateko: Bilbo-Madril-Lima-Iquitos (hegazkinez), Iquitos-Tamshiyacu (txalupaz).

*(Quichueraz “tamshi”=soka eta “yacu”=ura)





Derio saskibaloi taldea

“Afizioa Deriora er litzaiguke talde indar

Urte batzuetan ia galduta egon ondoren, saskibaloirako zaletasuna berriro piztu da Txorierrin. Roberto Floresekin egin dugu berba. Derio saskibaloi taldearen presidentea eta entrenatzailea da Roberto, eta kirol hori herrian bultzatzea du helburu.

Testua eta argazkiak: Bestorrene

Zein da taldearen historia?
Taldea 1995. urtean sortu zen. Hasierako denboraldietan, lehenengo hiru urtean edo, jokalari asko zenbiltzan taldean eta ekipo batzuk zeuden martxan. Baina proiektua bertan behera gelditu zen urte batzuetan. Orain dela hiru urte entrenatzaile sartu nintzen institutuan. Iaz pentsatu genuen txapelketa federatuan parte hartzea, baina ez zen posible izan. Hala ere, aurrera jarraitu dugu eta nesken talde bi federatzea lortu dugu aurten. Nesken zein mutilen beste talde bat osatu da institutuan eta eskolan ere hasi da beste talde bat osatzen. Datorren urtean hartuko du parte lehiaketetan.

Zein da taldearen egoera?
Esan bezala, nesken taldeak federatuta daude eta bakoitzean 11 jokalari ditugu. Institutuko taldean 10 lagun batu dira. Herri askotako jokalariak daude: Derio, Mungia, Sondika, Zamudio, Lezama, Meñaka, Larrauri, Maruri... Etorkizunari begira bazkideak izatea gustatuko litzaiguke. Diru kopuru baten truke bazkidetxartela emango zaie eta hainbat abantaila izango dituzte.

Non egiten dituzue entrenamenduak eta partidak?
Entrenamenduak zein partidak Derioko kiroldegian egiten ditugu. Entrenamenduak astelehen, eguazten eta barikuetan

akartzea gustatuko
rtsu baten inguruan”

Senior taldea

Junior taldea

“Saskibaloirako zaletasuna handia ez bada, kirol honi garrantzi gutxi ematen ziolako izan daiteke, beharbada”

izaten dira. Kiroldegian zelai bi daude eta talde nagusiek hiru ordutan entrenatzen dute zelai handian eta ordu bitan zelai txikian. Beste taldeak bost ordutan entrenatzen du zelai txikian. Leku ona da entrenatzeko, baina entrenamendu gehiago egitea gustatu litzaiguke, baita zelai handia sarriago erabiltzea ere.

Badago saskibaloirako zaletasunik inguruan?

Gureak dira inguruko talde bakarrak, nahiz eta iaz Sondikan beste talde bat egon. Zaletasun handirik ez dago, baina hori arrazoi birengatik izan liteke, beharbada: behar beste publizitaterik egiten ez delako, edo kirol honi ez zaiolako garrantzirik ematen. Guk kartelak jartzen ditugu gure partiduen berri emateko; hala ere, jende gutxi hurbiltzen da jokatzen ikustera. Bazkide kanpaina eta beste proiektu batzuen bitartez afizioa igotzea espero dugu. Beste alde batetik, zaila da Kasillako pabilioian egiten diren partidak ikustera joateko sarrerak lortzea eta horrexegatik ez dugu bidaiarik antolatzen. Tau eta Bruesa taldeen partidak ikustera joateko ere gustatuko litzaiguke autobusak jartzea.

Zelango asmoak dituzue etorkizunerako?

Gure helburu nagusia saskibaloi talde gehiago osatzea da. Eta posible izanez gero, inguruko afizioa Deriora erakarri nahiko genuke talde indartsu baten inguruan.

Eman gazte bati arrazoiren bat saskibaloian aritzeko eta zuen taldean izena emateko.

Arrazoi asko daude: kirola egitea, ondo pasatzea, gauza berriak ezagutzea... Horrezaz gainera, lagunak egiteko aukera ezin hobea izango dute taldean apuntatuz gero. Oso giro ona dago eta leku askotako jendea.



Mikel Laboa, txoriaren azken hegaldia (I)

"Orain mitoa da betiko… Ez Dok Amairuko kidea, euskal kantagintzaren berritzailea eta belaunaldien arteko zubia… Euskal kulturak luzaz oroituko duen kantaria… Erdi itxitako begien misterioa" (Berria, 2008-12-02).
"Txori batek bezala hitz egiten zuena. Bere kantu esperimentalekin bere hizkuntza bilatu zuena" (Josanton Artze).
"Misterio handi batez eta lilura handi batez inguraturiko tipoa zena" (Xabier Lete).
"Xumetasunean dago sakontasuna, ez sinplekerian. Mikel oso xumea zen" (Benito Lertxundi).
B. Atxaga, R. Ordorika, Muguruza anaiak, Rami, L. LLach, M. Markez, J. Tapia, J.K. Perez, J.A. Urbeltz, I. Lazkano, eta abar, eta abar, eta abar. Aurpegi tristeak eta hitz ederrak.



Eta zer diogu besteok, ezagunak ez garen beste *terrenalak*? Batez ere barru-barruko sentimenduak azaleratzeko kapaz izan den artista handia, emozioen motorra …, inor nola edo hala ukitu gabe utziko ez zuen kantaria…, berea eta besteena, lagunena eta denona, batzuentzat eta batzuetan estridentea, baina beste batzuentzat eta beste batzuetan gozoa eta hunkigarria; betikoa eta berritzailea, hurbilekoa eta urrunekoa, euskalduna eta nazioartekoa, argia eta misteriotsua, mitoa eta pertsona, polemikoa eta baketsua, perfektua eta inperfektua, Lekeitiokoa eta Donostiakoa, terapeuta eta terapeutikoa, neuropsikiatra eta neuromusikaria, gaurko gazteen artean gutxi ezagutua eta erdal giroan ezezaguna, atzokoa, gaurkoa eta betirakoa, hemendik aurrera gure eguneroko kulturaren aldareetan jarriko duguna… Beste mila adjektibo erantsi daiteke bere bizitzatik eta bere ekarpenaren jantzitik. Beste mila sentimendu probokatuko dituzte bere abestiek… Ez gara nekatuko bere musika entzuten…

Testua: Pospolin



Errezetak eta antxinako argazkiak, paperetik sarera

Aldizkarian errezetaren bat irakurri zenduan behin, eta orain gura dozu prestau. Baina ez zara ondo gogoratzen eta, aldizkari gehienak gordeta euki arren, ez dozu topetan. Aldizkarian senideren bat agertzen dan argazkia ikusi dozu 'Antxinako argazkiak' atalean, eta kalitate onean eskuratzea gustauko jatzu. Zer egin?

Hemendik aurrera errezago izango dozu konponbidea topatea, errezetak eta argazkiak *aikor.com* webgunera eroan dira eta.

'Txokoak' atalean sartu eta ondorengo argibideei jarraitu!

'Errezetak' txokoan, aldizkarian argitaratu dan errezeta guztiak edukiko dozuz. Errezeta bakotxean, hori prestatzeko behar diran osagaiak eta prestetako modua azalduko jatzuz. Ganera, laguntza izango dozu danak begiratzen ibili beharrik ez izateko eta gura dozuna topetako:

Etiketak: lagungarria da, esate baterako, bakarrik entsaladak edo arrozaz egindako platerak begiratu gura badozuz.

Bilatu: Hau zabalagoa da. Laukian 'olibak' berbea sartuz gero, olibak erabili diran errezeta guztiak agertuko jatzuz.

On egin!

'Antxinako argazkiak' txokoan, paperean argitaratu diran argazkiak dagoz eta bertan agertzen diranen perfilak eta izenak be jarri doguz. Hemen be laguntzak dozuz:

Etiketak: Argazki gitxi argitaratu dira orain arte, eta horregaitik ez da oso erabilgarria. Argazki gehiago eskegi ahala, errezago izango da herri bat edo bestea aukeratuta.

Bilatu: Honek idatzita dagoan edozein izen topetako balio dau. Adibidez, Etxebarria abizenekorik badago argazkietan? Ba bai, eta hiru herritako argazkietan, ganera.

Argazkiak jaitsi: Klik egin gura dozun argazkian, eta *aikor.com* webguneko argazkien atalera eroango zaitu. Bertako argazkian *lupatxo* bat dago goiko eta ezkerreko aldean.



Han sakatu eta argazkia tamaina handian agertuko da. Detaile guztiak ikusteaz ganera, deskargau be egin ahalko dozu.

Eta ez ahaztu! Izenen bat badakizu edo emondako informazinoa txarto badago, erabili beheko aldean dagoan **'Erantzunak'** ataltxoa horren barri emoteko.

Eskerrik asko eta disfrutau argazkiakaz!

Testua: Bestorrene



Zilar bidea, Meridatik Salam

Zilar bidea Iberiako bizkarrezurretarikoa da. Hura bezalako bideetatik egin ziran erromatar eta arabiarren inbasioak, baita kristauek berreskuratzea be. Erromes mozarabiarrek ibilbide transhumante eta hegoaldetik egiten zituzten joan-etorriak Santiago apostoluaren hilobira. Gaur egun, 2.000 urte pasatu ondoren, ikusgai daude oraindik orduko bide-galtzadaren zati batzuk.

Testua eta argazkiak: Jose María Quijano

Frantziatik datorren Done Jakue bidea ez bezala, basatia eta bakartia da Zilar bidea; aproposa intimitaterako, natura-gune handi eta azpiegitura gutxirekin. Erromesek horregatik nahiago dute, beharbada.

Zilar bidea urrian egitea erabaki genuen. Urria hilabete egokia da ez dagoelako ez jendetzarik, ez berorik. Hamar egun izan ditugu aurretik, Meridatik Salamancarako bidea egiteko; 300 km guztira.

Merida leku ona da ibilbidea hasteko. Merida Erroma da. Eta lehenengo egunean hura bisitatzea erabaki genuen, bertatik ibiltzea erromatar aroko unerik gogoangarrienetara joatea da-eta.

Lehenengo etapetan Extremadurako larreak izan genituen zain. Ekosistema horretan elkarrekin bizi dira hauen moduko basapiztiak: txerri iberikoa, ardi borroa, gaztaina koloreko behia, oreina, arrano inperiala eta basurdea.

Caceres ezustea da erromesarentzat, hirigunean dagoen batasun eta Erdi Aroko arkitekturaren harmoniagatik. Erromatik Erdi Arora joan gara.

Aldeanueva del Camino goi-ordokira heldu baino lehen Casar de Caceres, Galisteo eta Caparratik pasatu gara. Hervas herria ere bisitatu dugu. Auzo judutarrak oso ospetsu egin du hori eta Erdi Aroko arkitektura judutarraren kaleen amarauna XV. mendetik hona iraun du.

Gaztelako estepa

Ordokira Bejarreko korridoretik heldu gara. Salamancan gaude. Larreak desagertu eta mendien tarteko ekosisteman sartu gara. Arteak eta artelatzak tokia utzi diete haritzari, gaztainondoari eta lizarrari.

Salamancako etapak luzeak dira, isilune ugariekin. Erromesak goiz jaiki dira eta egunsentia baino lehenago daude bidean.

ZAMUDIO

MARMOLERÍA TXORIERRI
MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
fatsuak, atariak eta hilerriak

BAR TXIKI
MENUAK
TORTILLAK

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?
Elektrolisitasko sprayak
Eskuko sprayak
Pintzelerak
Arazoei agur...
ARLAN
902 54 08 54

ancara

Lehenengo eguzki-printzek desegin dituzte itzalak eta arteak marraztu dituzte Gaztelako estepan. Fuenterroble, Salvatierra eta San Pedro de Rozadoseko etapak egin ditugu Salamancara heldu baino lehen.

Guk bidea egin beharrean, bideak gu egin gaituela konturatu gara ibilbidea amaitzean. Beste erromes batzuk ezagutu ditugu eta euren adiskidetasunarekin aberastu egin gara. Lagun berriak egin ditugu bidean. Eta historian sakondu dugu erromatarrekin amets egin dugu-eta, Erdi Aroko zaldunekin, juduekin eta artzain transhumanteekin. Merezi izan dute nekeak, izerdiak eta oinetako babak edo ur-batuak. Zalantza izpi barik, bidean egongo gara berriro datorren apirilean. Salamanca-Santiago dugu zain.

“Guk bidea egin beharrean, bideak gu egin gaituela konturatu gara ibilbidea amaitzean”





Etxeko sukaldaritza

Gabonetako menua

Azalorezko krema

Osagaiak (4 lagunentzat):
–Azalore erdia
–100 g ganba zuritu
–4 berakatz-zati
–Limoi erdiren zukua
–Oliba-olio txorrostada bat
–Ura eta gatza
–Bezperako ogia dadotan ebagia eta prijituta

Prestatzeko era:
Azalorea 20 minutuan izango dogu uretan egosten. Gatza be botako deutsagu. Berakatzak oliotan gorrituko doguz, eta horreek eta limoi zukua gehituko deutsaguz azaloreari. Irabiagailutik pasatuko dogu. Zartagin baten olio-tanta batzuk bota, eta ganbak salteatuko doguz. Ganbak kremari gehitu eta ogi prijituak lagunduta mahairatuko dogu.

Kapoi betea

Errezeta: Joseba Bringas, kapoi-hazlea

Osagaiak:
–2,5 kiloko kapoia
Betegarria egiteko:
–75 g pinazi txigortu
–kopa bat brandy
–ogi-xerra bi
–sagar bi
–50 g intxaur
–50 g okeran (hazur bakoak)
–50 g mahaspasa
–txarri-gantza

Maite Lekerika, sukaldaria

Saltsa egiteko:
–azenario bi
–porru bat
–kinpula bi
–litro erdia hegazti-saldea
–kopa bat oporto
–baratxuri-atal bi
–gatza eta piperbaltza
Goarnizioa egiteko:
–aza gorri txiki bat
–golden sagar bi
–koilarakada bi azukre baltza

Prestatzeko era:
Ogia zatitu eta brandytan jarriko dogu beratuten. Sagarrak zuritu eta horreek be zatituko doguz. Fruitu lehorrak ogia eta sagarrakaz nahastuko doguz. Kapoia nahasteagaz beteko dogu eta, beharrezkoa izan ezkero, josi egingo dogu. Txarri-gantzaz igurtzi eta gatza eta piperra botako deutsaguz.

Barazkiak garbitu eta zatitu ostean, ontzi baten jarriko doguz eta horreen ganean, kapoia. Labean sartu eta 20 minutuan erreko dogu 250 gradutan. Denbora hori pasa ostean, 150 gradutara jaitsiko dogu tenperaturea. Oporto ardoa bota eta lurrunduten itxiko dogu apur baten. Saldea gehituko deutsagu.

Ontziari estalkia jarriko deutsagu, kapoia sikatu ez daiten. Labean ordubetean izango dogu eta aldizka bustiko dogu egosketa-zukuaz. Egiten danean, labetik atera eta jalkiten itxiko dogu. Bularkiak eta izterrak bereiztuta zatituko doguz.

Aza gorria zerrendatan moztu eta egosketa bat emongo deutsagu mikrouhinean. Gurin apur baten erregosi eta sagarrak gehituko deutsaguz (dadotan ebagita). Sueztituko dogu, dana bigundu arte. Azukre baltza gehituko deutsagu.

Kapoia xerratan ebagi eta goarnizioagaz atarako dogu mahaira.



Ezusteko postrea

Osagaiak:
–Merengea egiteko
–3 zuringo
–4 koilarakada azukre
–Limoi erdiren zukua
–Gatz apur bat
–4 sobao txiki
–3 milekota (erdi txikituak)
–3 zati anana (txikituak)
–Milekota eta ananazko zukua (apur bat)
–Bainilazko izozkia

Prestatzeko era:
Merengea elur-punturaino egin eta hozkailuan gordeko dogu (ordu bi edo hiru ordu arinago egingo dogu). Sobaok erdibituko doguz eta labera sartzeko moduko bandeja baten iminiko doguz horizontalean, base bat eginez. Frutak txikitu eta sobaoen ganetik jarriko doguz. Zukuagaz apur bat bustiko dogu eta erreserbatu egingo dogu.

Labea 200 gradutan berotuko dogu eta muntaia postrea jateko orduan egingo dogu.

Sobaoen ganean frutea iminiko dogu eta horren ganean, izozkia (zentimetro bateko lodierea izan behar dau). Izozkiaren ganean merengea jarriko dogu. Bandejea estali eta labean bost minutuan izango dugu, gorritu arte.

Bakoren bazterra

Gure glosario txikia (I)

Denbora luzea emon dugu ardoaren gaineko hausnarketak, grinak eta desadostasunak alkarrekin partekatzen. Era berean, termino berezi batzuk erabili ditugu: batzuk ezagunak izan daitekez; beste batzuk, nahasiak; eta beste batzuekin ez gara gogoratzen, beharbada. Horregaitik gonbidatzen zituet ardoaren gaineko gure glosario txikia osatzera. Bertan artikuluetan agertu diran terminoak batuko ditugu, edo kaletik entzuten ditugunak. Baina jakina, aikor!lagunak, hau hitzaurre xumea izango da, denboraren poderioz betetzen joango garena.



Iñaki Suarez, sumillerra

Bizia: Ardo arina, atsegina, ahotik igarotzean azkartasun-sentsazioa emoten dauena, baina konplexua ez dana.
Atsegina: Glizerina eta hondar-azukrearen maila egokia dabe eta ondorioz, atseginak dira ahotik sartu eta igarotzean.
Ertza: Beste sentsazioekin bat egiten ez dauen sentsazioa eta ardoaren armonia asaldatzen dauena. Batzuetan "(...)aren puntak" espresioa erabiltzen da, ertzak azaltzeko.
Arropea: Muztioaren deshidratazio partzialetik –sutan edo Maria bainuan– lortutako produktua. Azukreak karamelatu eta muztioari kolore iluna emoten deutso.
Leuna: Ardoa ez da mihitik irristatzen ahotik igarotzean, baina, hala ere, ez da garratza. "Zeta-antzeko" eta "landu" terminoak ere erabiltzen dira.
Kapa: Ardoaren kolorearen intentsitatea. Kapa oneko ardoak kolore bizia dau. Kontrakoari "hustua" esaten jako.
Konplexua: Zapore eta aroma aldetik sentsazio sorta zabala transmititzen dauen ardoa.
Gorputza: Eskeletoak, haragiak eta zainak osatzen dabe ardoaren gorputza. Eskeletoa ardoaren estruktura izango zan eta haragiak haren gantzutasuna azalduko eban. Zaina garraztasunaren bidez azalduko zan.
Dotorea: Fintasuna eta klasea dituan ardoa. Egokia, landua eta neurrigabekeriarik ez dauen ardoa da.
Bilakatua: Denboraren poderioz aldaketak izan dituan ardoa. Termino hori akatsak azaltzeko erabiltzen da orokorrean; hau da, neurriz kanpoko bilakaerea edo desegokia.

"LAIA HOTEL MUSEOA"



Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu: sauna, vaporiuma, jacuzzia eta dutxa inguratzailea eta infragorrizko ohea.

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren erantzuna:
Lezaman
Irabazlea:
Javi Pastor

LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:
Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOTERAPIA
(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

Zein agortu da hiru egunean?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

OPTICA MODERNA
Erdiko, 4 - 48180 DERIO - Telefonoa 94 454 37 93

Jai zoriontsuak!
Lilak Loradenda



BASKOLAN
construcciones
Petendek, fellatzek.
Konponketa eta iraugarrizak egiteko




ZIRIBADA
JATETXE
94 454 5045

Oparisk
Estankoa
PEIRÁ ULABARRETA

Zeluna
haurrentako arropa
0-16 urte bitartean

ESTANKOA

HORTZ KLINIKA
Iñaki Zabala


ITSA IKUSLAN

Carmendia
ardoak

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

GAZTEENTZAT
Atik Zra Euskadi
J. K. Igerabide
Gurarien esku-olasa
X. Olaso
Johnny ereilea. Gerra guztien aurkako eleberria
F. D'Adamo
Zazpi pertsonaia istorio bila
Y. Arrieta Malaxetxebarria
Periko txoriburu, Errumania Herri Zaporea
I. Gaztanbide

NAGUSIENTZAT
Zorionak: Ama izango zara
Debagoieneko Mankomunitatea
Bilbao-New York-Bilbao
K. Uribe
Ispiluaren kalteak
E. Jiménez
Ziutateaz
B. Atxaga
Egin bedi zure nahia
A. Arana

MUSIKA

Antologia
Itoiz
Ultimátum
OBK

DENBORA PASA

LETRAZOPA

B	Z	U	I	R	T	E	U	K	S	E	P	S
Z	U	B	Ñ	F	E	Z	L	Y	O	K	J	O
D	Y	L	X	A	S	J	F	P	A	J	L	R
B	E	S	A	P	E	A	H	I	F	O	K	B
D	X	I	D	R	S	R	G	A	H	K	I	A
B	D	B	Y	E	R	E	T	M	G	H	G	L
H	A	J	Ñ	K	S	A	L	O	R	U	L	D
E	F	B	R	S	G	E	P	I	K	I	H	E
A	G	T	F	Y	J	K	L	N	B	B	L	A
Ñ	U	E	N	T	T	N	P	X	Ñ	U	M	N
X	P	A	R	T	E	A	K	O	D	Ñ	K	P
O	U	Z	N	X	S	E	M	R	M	N	M	U

B	A	D	P	O	A	I	M	F	Y	Z	O	F
S	I	L	E	F	O	U	G	A	Z	T	R	L
R	Y	A	O	S	B	Z	A	R	K	N	P	J
A	P	M	T	L	B	T	B	R	N	H	O	Ñ
X	D	U	E	Z	Ñ	X	D	E	U	G	A	P
R	Y	T	R	D	A	H	N	T	S	F	G	O
B	K	S	T	O	E	D	Y	S	M	O	P	Ñ
D	B	A	P	K	U	E	G	I	N	H	A	I
H	J	E	N	G	Ñ	X	O	E	L	I	R	E
Z	L	I	S	F	R	K	I	T	J	S	J	Ñ
B	X	L	J	X	U	L	P	K	Z	M	B	H
S	E	M	Y	A	R	R	A	M	A	Z	T	A

Jarraitzen dogu gorputz osoa aztertzen. Ia gai zaren **gorputzean ditugun 7 atalen izenak** aurkitzen* goiko letrazopan. Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** *76. zenbakiaren erantzuna. Gorputzean ditugun 7 atalen izenak.*

Larrondoko Ikastetxea
ESPERANZA ALHAMA
Lanbide Heziketa

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Erdi mailako
Goi mailako
LIAIE (Lanbide Bizigabeerako Bozgeiki)
INFOMelo Zentroak
Lanerako prestakuntzako Bazarrak
Hobetze.

Larrondo 2 eta 4, LOIU (BIZKAIA) e-mail: alhama1@arrantzu - Informazioa: 94 471 01 51

Karlos
PAPERA
ETA
PINTURA
ORO HAR
Azoleta, 10 (Lasua etxepidea)
48180 LARRABETZU (Bizkaia)

ONDO ERROSI
JANARIA + FRUTA
94 455 54 47

ZANDUR
Jesús Peñagar
López Hidalgo

Jaurria SAN ISIDRO
ESKUINTZAK, BATAIDAK, BAZNARTZEAK

INPORTAZIOA ETA
NAZIONALA

Bar TRIPPY
ZURE GIROAK OVERA

GARAIOLTZA, S.A.
PREFABRIKATUAK ERAIKUNTZAK
LEZAMA
EUSKERIZTZAK, MERKADARITZA-LUKALAK ETA GARAJEAK
LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK, LEHIATU HANDIAK,
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK
TF.: 94 455 50 19
Lezama (Bizkaia)

MODA
INFANTIL
Tximeleta

Gure gizarte erantzukizunak ingurumena zaintzera behartzen gaitu...



...maila handiko teknologiarekin.

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu lehiakortasunean hegazkin-motor integratzailerik onenak eskaintzeko UV° galdeketa ranko dituztenak diseinatu [illegible] hobetzeko teknologiak bultzatuz. Teknologiak, ingurumen alderdia [illegible] integratu jakin duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena zaintzeko diseinatzen dituzten [illegible] jarraitzen hobetzen ari gara.

LUBRIZOL

www.itp.es

ITP
GRUPO
Industria de Turbo Propulsores, S.A.

KLASERIK EZ!

(Tabi, qual vai ai)

INGELESA & EUSKARA KLASERIK GABE

ZAMUDIO. TEKNOLOGI PARKEA 103 - ATIKOA. 944 31 80 47
BILBO. URKIXO XUMALDEA, 22. 944 70 18 57
GETXO. ALGORTAKO ETORBIDEA, 76. 944 91 50 60